

Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak*

PEIO KAMINO KAMINONDO**
PATXI SALABERRI ZARATIEGI***
JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO****

SARRERA

Euskaran maldiziorik (biraorik, sakrerik) ez dagoela ez da guztiz egia. Aspaldiko abestiaren “biraorik ez duen hizkuntza txukun ta garbia” lelo zabaldu hura ez da erabat egia. Jakina bada ere askotan gaztelaniazko biraotara edo jokamoldeetara jotzeko joera dagoela, egia da, baita ere, euskararen besteri gauza txarrak esateko moduak eta esaerak badirela.

Aurreko batean, hizkera adierazkorraz aritzerakoan, Luzaideko sakreak hartu genituen aztergai, alfabetikoki aurkeztutako halako zerrenda bat eman ez (ikus Kamino & Salaberri & Zubiri, 2004). Oraingoan ere aztergai bera aukeratu dugu, hau da, zein eta nolako maldizioak edota biraoak aurki daitezkeen, kasu honetan Goizuetako hizkeran, baina lanaren egitura eta aurkezteko modua aldatu dugu, bi arrazoiengatik bereziki. Alde batetik, adierazi nahi dugu gai bat, zein baita ere, ukitzen denean, aurkezteko moduak desberdinak izan daitezkeela –han alfabetikoki emana aurkeztu genuen, eta hemen, berriz, arloka sailkatua dakargu–, eta beste aldetik, aurrekoarekin lotuta, horrela aurkezteak erraztu egin dezake, neurri batean behintzat, bai erabilerara bera, bai egin daitezkeen aukeraketa.

Lanaren helburuak han azaldutako berak dira: han-hemengo datu errealak jasotzea (kasu honetan Goizuetan aurki daitezkeen birao-bildumatxoa

* Lan hau 2004ko deialdian Nafarroako Gobernuak diruz lagundu dituen Nafarroarentzako interes bereziko ikerketa proiektuetako baten zati da.

** Luzaideko euskaltzalea.

*** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

**** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

egitea), erregistro mota honen erabilera ezagutaraztea, eta, ahal den heinean, gaur egun toki askotan eta jende askorengan dagoen hutsarte bat betetzea.

Seguru gaude ez ditugula denak jaso, eta ezta denak jasoko ere; maiz, konbinaketak egiteko aukera eta norberaren irudimena tartean sartzen direlako, eta horretaz gainera, egoera bakoitzari egokitu behar zaiolako. Alde honetik duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, zeren biraoaren hartzailearen/jasotzailearen arabera, edo agian hobeki, hartzailearen prototipoaren arabera, ongienik letorkiokeen birao-hautu bat edo bestea eginen baita, betiere dituen ezaugarriak aintzat hartuz (gorputzezkoak, izaerazkoak, e.a.).

Horrezaz gainera, arlo honetan hiztunak duen ezagutza, trebetasun-maila eta gaitasuna ere kontuan hartu beharreko aldagaiak dira. Erregistro honetako hiztegia nahiko mugatua izan arren –goienez jota ere, ehunka pare batera edo hirura iritsiko da¹–, horien konbinaketak egiteko moduak, esamoldeak eratzeko erraztasunak, metaforak sortzeko irudipenak, bai eta, zenbaitetan, forma berriak asmatzeko gaitasunak ere zerikusi handia dute hizkuntzaren barietate honen erabilerarekin. Alde horretatik, mugatua dela esaten bada ere, malgutasun franko badago elementu horiek denak ezaugarrien eta mailen arabera konbinatzeko garaian.

Zernahi gisan, aitortu beharra dago birao guztiak ez direla maila berekoak, eta ez direla modu berean erabiltzen ere. Ez da gauza bera norbaiti “Hau zozoa!” esatea (graziarik ez duela adierazteko, esate baterako), edo “Zerri urde putakumea!” deitzea. Esaterako, errabia, haserre, amorrazio edota gorroto handia adierazteko hiru-lau maldizio segidan botatzea normala da (cf. *urde zorrizu zimazu ergel potro-handia*), eta esandakoei beste hainbeste gaineratzea ere bai. Hortaz, nolako barnesentimendua den eta adierazi nahi den, halako mailaketa eginen da eta birao kopurua agertuko.

Baina, askotan, zehazten hasi eta, zaila da mailak edo mugak argi eta garbi finkatzea, zein zein mailatan dagoen kokatzea, muga horiek –egoeren eta hiztunen arabera– irristakorrak direlako; hala ere, egia da badirela birao batzuk beste batzuk baino gogorragoak, batzuk beste batzuk baino iraingarriagoak.

Gainera, birao-mailaketa hau herri batetik bestera alda daiteke (eta, berez, aldatu egiten da). Badakigu, esaterako, norbaiti *gizajoa* deitzea Goizuetan edo Azpeitian (bidenabar, biak xapo-herriak) arrunt desberdina dela; lehenengoan ez da ia birao-mailara ere iristen, eta bigarrenean, berriz, norbaiti esan dakiokeen biraorik okerrena eta handiena dateke. Atera kontuak hitz beraren adierazia nola eta zenbat aldatzen den herri batetik bestera!

Dena dela, arestian aipatu bezala, aztertzen ari garen herrian bertan nolabaiteko mailaketa burutzen saiatuko gara, kontuan izanda hemen agertzen den proposamena nahiko subjektiboa dela; herriz herri desberdintasunak aurki daitezkeen moduan, hiztun batetik bestera ere biraoak mailakatzekoan aldea ediren baitaiteke. Hortaz, hemen adibidetako ematen ditugun hiztegia eta esamoldeak –beste hainbat proposa badaitezke ere– barietate honetako erakusgarri izan daitezkeela iruditzen zaigu.

¹ Egia esan, ia zerrenda soila, eta hemen aipatzen ditugun baino gehiago aurki daitezke bibliografian ematen dugun Aurkerena & García & Zelaiaren *Irainka* hiztegitxoan.

Lana, goitixeago adierazi dugun bezala, arloka edo eremuka sailkatzen saiatu gara. Horretarako, hainbat aldagai hartu ditugu aintzat: entzulearekiko alde txarrak (bai gorputzarenak bai izaerarenak) adierazteko erabiltzen diren moduak, sentimenduen mundua azalarazteko aurki daitezkeenak, harridura adierazteko darabiltzagun interjekzioak, e.a.

Aldagai horiek denak aintzat hartuta, honako sailkapen hau egin dugu:

1. Harridura hitzak eta esapideak
2. Semantikan oinarritutako sailkapena
 - 2.1. Gorputz eta izaera ezaugarriak txarresteko esapideak
 - a) Akats fisikoei erreferentzia egiten dieten hitzak eta esamoldeak
 - b) Nortasunari erreferentzia egiten diotenak
 - 2.2. Esandakoa indartzeko moduak
 - 2.3. Irain hitzen mailak
3. Morfologian oinarritutako sailkapena
4. Bibliografia

1. HARRIDURA HITZAK ETA ESAPIDEAK

Haserrealdia adierazteko, eta beste franko gauzatarako, zenbaitetan hainbat hitz, esaldi, esamolde, esaera... erabiltzen dira. Askotan ez du entzulea iraintzeko inolako asmo zuzenik, soil-soilik egoera horri hitzezko adierazpideekin laguntzen zaio. Mota honetako esamoldeak *harridura esapideak* deitu dugun sailaren barrenean sartu ditugu. Orokorrak diren *arraioa*, *arranopola*... motakoak-eta tankeratsukoak izan daitezke; gehienetan, esaldiaren hasmentan paratzen dira esaldiari adierazkortasuna eman nahian edo.

Arraio

Arrunta eta orokorra da interjekzio hau. Sarasolaren hiztegiaren arabera harridura, haserrea... adierazteko hitza da.

- *Biño, nola arraio (e)san bear dit orrara ez yoteko!* (Baina, nola arraio esan behar diat horra ez joateko!)
- *Ze arraio pasatzen da emen?* (Zer arraio pasatzen da hemen?)

Honen aldaerak izan daitezkeen *arrane* eta *arraione* ere aurkitu ditugu P. Perurena goizuetarraren liburuetan. Honelakoak darabiltza:

- *Gogor samarra dun, baina, arraionek ez badu, bai egia galanta!* (1993: 175)
- *Eta hik sinistu, tuntun arrane horrek!* (1993: 80)

Dedion, dedio, dedios, redios, redio

Gauza bera esateko aldaera diferenteak dira. Orokorra da horrelako eufemismoak erabiltzea, batik bat gaztelaniatik hartutako hitzak edo esamoldeak direnean; berdinak ez badira ere, maiz, aldaketa fonetikoren bat eginez, jatorrizko formen antzetsura ematen dira.

- *Dedio, ze in duk?* (Dedio, zer egin duk?)
- *Biño, redio, bo zak papera bear den tokira!* (Baina, redio, bota ezak papera behar den tokira!)

Demontre, demontres

- Hau ere Hegoaldeko toki gehientsuenetan erabiltzen dela uste dugu.
- *Ze demontre itten duk ik emen?* (Zer demontre egiten duk hik hemen?)
 - *Non demontres sartu te ttut nik giltzak!* (Non demontres sartu ote ditut nik giltzak!)

Izorrai

Horrela paratu badugu ere, berez, esapidea da, eta ez hitz bakarra; aginterazko forma guztiak erabil daitezke, era honetara *izorrai* eta *izor di* ‘izorra hadi’ aldaerez gainera, beste ondoko pertsonak ere aurki daitezke: *izor zittez* ‘izorra zaitetz’, eta *izor zittezte* ‘izorra zaitetzte’. Hauetaz gainera, 3. pertsonak agertzeko subjuntiboko adizkietara jotzen da: *izor dila* ‘izorra dadila’ eta *izor dittezela* ‘izorra daitezela’.

- *Izor zittezte oain zuen trajeik obenakin!* (Izorra zaitetzte orain zuen trajeik hoberenarekin!)
- *Orain berriz, hitza ere gizonarena omen dela, izorrai!* (Perurena, 1993: 182)

Jobar, jode(r), jolines, jopa, jope

Azpimarratzekoa da hasierako *j-* soinuaren ahoskera, gaztelaniazkoa bezalakoa baita, eta ez Goizuetan egiten den moduan *y-* sabaikaria (cf. *yarri, yan, yosi...*).

- *Jobar, berriz in bar al dut buelta!* (Jobar, berriz egin behar al dut buelta!)
- *Joder, zenbat loteri erosi bar duk!* (Joder, zenbat loteria erosi behar duk!)

Kakazarra (kaka zaharra)

Bazter guztietan hedatu askia den forma.

- *Kakazarra, eztit inñalak inta asmatuko!* (Kaka zaharra, ez diat eginahalak eginda asmatuko!)
- *Kakazarra, berriz e euria ai do!* (Kaka zaharra, berriz ere euria ari du!)

Koño, errekoño, errekoñe

Erdaratik hartua da jatorrizko hitza, eta hemen forma beraren aldaera desberdinak agertzen zaizkigu.

- *Koño, ta noiztik ao i emen?* (Koño, eta noiztik hago hi hemen?)
- *Errekoño, zenbat aldiz (e)san bear dit gauza bera?* (Errekoño, zenbat aldiz esan behar diat gauza bera?)

Lalebita

Harridurazko forma hau ere erdaratik zuzenean hartua da, artikulua eta guzi, ikus daitekeen bezala.

- *Lalebita, nondik atere duk karta ori?* (Lalebita, nondik atera duk karta hori?)
- *Kauen lalebita, ori puska kendu dio urdaiazpikori!* (“Kauen lalebita, hori puska kendu dio urdaiazpikoari!”)

Laospa, ospa(s)

Aurrekoa bezala, hau ere erdaratik hartua da.

- *Laospa, ori abildadea dik eskukin!* (Laospa, hori abildadea dik eskuekin!)
- *Baina, ospas!, etzela bere amarretatik askatuko motikorik.* (Perurena, 1993: 143)

Bada beste euskarazko aldaera bat, antzetsukoa dena: **ospa** (in = joan, alde egin, urrundu)

- *Ospa izak emendik lenbailen, e!* (Ospa egin ezak hemendik lehenbailehen, eh!)
- *Usu ta fite ospa intzun andik!* (Usu eta fite ospa egin zuen handik!)

Laostia, ostia(s)

Hau ere gaztelaniatik hartutakoa da, artikularekin edo gabe; gehienetan harridurazko hitzat erabiltzen da, esaldiaren hasieran:

- *Laostia, ori indarra do makina orrek!* (Laostia, hori indarra du makina horrek!)
- *Ostia(s), a ze eskapada in duna kotxe orrek!* (Ostia(s), a zer eskapada egin duena kotxe horrek!)

Beste batzuetan, berriz, izentako (kasu hauetan *krixto* edo *demontre* hitzen pareko) edo izenondotako (beste hauetan, berriz, *alu*, *zerri*, *kabroi* edo hauen tankerako hitzen esanahiarekin) agertzen zaigu. Esatarako:

- *Ze ostia pasatu da emen!* (Zer ostia pasatu da hemen!)
- *Zein ostiak in do lan au!* (Zein ostiak egin du lan hau!)
- *Gizon ostia orrek ittekoa ezta aundia!* (Gizon ostia horrek egitekoa ez da handia!)

Laostra, ostra(s)

Zenbaitetan gaztelaniako artikularekin eta beste zenbaitetan gabe ager daiteke; edo pluraleko forma ere bai, azal daiteke, baina honelakoetan artikulurik gabe.

- *Ostras, ori belozidadea artu do!* (Ostras, hori belozidadea hartu du!)
- *Laostra, aiteren iñ orduko torri yaiz ta!* (Laostra, aitaren egin orduko etorri haiz eta!)

Lapuñeta, puñeta(s)

Aitzinekoak bezalatsukoa, erdaratik ekarria.

- *Lapuñeta, au emengo nasmena; eztikit nondik asi!* (Lapuñeta, hau hemengo nahasmena; ez dakit nondik hasi!)
- *Ze puñeta ai da ori emen?* (Zer puñeta ari da hori hemen?)
- *Jarri du pitittoa, hasi dira berriz ere beren sexu librea praktikatzten, eta puñetas, ez duela gure lesbianita pitilindunak inola ere gozatzen!* (Perurena, 1993: 186)

Laputa

Aurrekoak bezala, zuzenean erdaratik hartua da.

- *Laputa, ze suertea dun alu orrek!* (Laputa, zer suertea duen alu horrek!)
- *Laputa, erra duk ontto ori!* (Laputa, ederra duk ontto hori!)

Mekaguen, mekaben, mekauen

Usu erabiltzen den forma da honako hau ere: aurreko beste hainbat bezala, gaztelaniatik bere horretan hartua da, aldaketak eta guzti. Aipatu ditugunez gain, beste aldaera laburtuago batzuk ere ager dakizkiguke: *kaben*, *kauen*, e.a.

Oinarritako forma hau hartuz, beste batzuk eraiki daitezke honen gainean edo arrimoan, esaterako: *mekauen la puta*, *mekauen la puñeta*, *mekauen dios*, *mekauen dion*, *mekauen dio*, *mekauen dion*, *mekauen dioro*, *mekauen la mar*, *mekauen la lebita*, *mekauen antekristo (sic)*, *mekauen kojón santo binagre*, *mekauen turrón*, e.a. Begi bistakoa denez, erdaratik zuzenean, edo aldaketaxoren bat eginez, hartutakoak dira, nahiz eta horietako batzuk gaztelania arruntean ez diren ohikoak.

- *Mekauen*, ez ttuk makalak makina oriek! (Mekauen, ez dituk makalak makina horiek!)
- *Mekauen dio*, ori eskapada in do! (Mekauen dio, hori eskapada egin du!)

* * *

Aipatutakoez landara, badira zenbait animalari erreferentzia eginez erazten diren esamoldeak, gure ustez nahiko orokorrak bazter guztietan, eta sail handi samarra osatzen dutenak. Esanahiaren aldetik *kaka zaharra*-ren balio-kidetsuak dira zenbait testuingurutan. Hona hemen erabilienetako batzuk eredutako:

- **Aston bioliña!** (Astoaren biolina!)
- **Aston buztana!** (Astoaren buztana!)
- **Aston potrok!** (Astoaren potroak!)
- **Zakurran alua!** (Zakurraren alua!)
- **Zakurran putza!** (Zakurraren putza!)
- **Zakurran barrabillak!** (Zakurraren barrabilak)

Beste zenbaitetan santuei edo Jangoikoari erreferentzia egiten dieten esapideak aurkitzen dira:

- **San Jurjon abarkak!** (San Jurjoren abarkak!)
- **San Pedron bioliña!** (San Pedroren biolina!)
- **Jangoikon birotek!** (Jangoikoaren biboteak!)
- **Jangoikon motil pekatu ori!** (Jangoikoaren mutil bekatu hori!)

2. SEMANTIKAN OINARRITUTAKO SAILKAPENA

Sailkapen hau burutzeko, lehenbizi, hitzen esanahiari eta erreferentzia zeri egiten dioten begiratu dugu; horren ondorioz, konturatu gara batzuk gorputzeko ezaugarriak txarresteko erabiltzen direla, eta beste batzuk, ordea, gizakiaren izaera edo nortasuna gutxiesteko, eta hala sailkatu ditugu. Ondoren, ohartu gara badirela aipatutako ezaugarri horiek nola edo hala, modu batera edo bestera, indartzeko aukerak, eta hori azaltzen saiatu gara. Gero, irain hitzen mailak aipatzen ditugu, irakurleak zenbait aztarna izan ditzan hizketa mota hau erabiltzeko garaian; horregatik azaltzen dugu zein diren arinak, erdi mailakoak eta gogorrak.

Ikus ditzagun, hortaz, nolako hitzak eta esapideak erabiltzen diren bai gorputza eta bai izaeraren ezaugarriak gutxiesteko.

2.1. Gorputz eta izaera ezaugarriak txarresteko esapideak

Bi azpiatal bereizi ditugu puntu honetan, alde batetik, gorputzezko erruak edo hutsak agertzen dituzten hitzak ditugu, eta beste aldetik, izaerari edo nortasunari erreferentzia egiten diotenak.

a) Akats fisikoei erreferentzia egiten dieten hitzak eta esamoldeak

Normalean, aurrean dagoenaren akats fisikoak agerian jartzea izaten da haserrealdiaren ondorioetako bat. Horretarako, jakina, entzulearen arabera-koa izan behar egiten den “deskripzioa”, nahiz eta askotan –gehienetan– ezaugarri horiek areagotu egiten diren eta entzuleak ez dituen ezaugarriak ere tartekatzen diren. Honako hauek sar daitezke sail honetan:

Ankaiar, ankame (hankaihar, hankamehe)

Ohartu *hanka* hitzak lehenbiziko silaban daramala azentu nagusia, baina hitz elkartuetan bigarrenera igarotzen dela (cf. *ankáiar*, *ankáme*, *ankámotz...*).

- *Ankázurton errak tto onek, ankame iartu onek!* (Hanka zurtoin ederrak ditu honek, hankamehe ihartu honek!)
- *Ze (e)san dizo lepame ankaiar orrek?* (Zer esan dizu lepame hankaihar horrek?)

Ankazikin (hankazikin)

Izengoititako ere erabili izan den forma da honako hau bere aldaera *an-kaxikin* bustiarekin.

- *Ze ai da emen ankazikin zorrizu ori!* (Zer ari da hemen hankazikin zorrizu hori!)
- *Mutur uker ankazikin alakoa, zu!* (Mutur oker hankazikin halakoa, zu!)

Aultzaundi (ahutzhandi)

Orotariko Euskal Hiztegia jasoa: «“Carrilludo, *autz-andi*, *masallandi*”» Lar. «*Autz-andia* (AN-5vill), hombre carirredondo, cari-grande» A.

Deigarria da, eta aldi berean nahiko berezia, hitz honetan agertzen den lehenbiziko silabako bukaerako [-l-] hotsa (*aul-*). Hau, segur aski, erreperkusioz sortu izanen da (cf. *Utzama* > *Ultzama*).

- *Tripazaku erra do urde bekets² aultzaundi orrek!* (Tripazaku ederra du urde bekets ahutz-handi horrek)
- *Urde aultzaundi orrek yain tto dianak ta eztianak!* (Urde ahutz-andi horren janen ditu direnak eta ez direnak!)

² *Bekets*: Izugarri, gehiegi jaten duena, hondorik ez duena. Hitz honetaz landa, *bekeskeria* ere erabiltzen da Goizuetan.

Beieskel (begiezkel)

Norbait iraintzeko erabiltzen den forma. Ikusten denez hitz elkartu honen bigarren osagarriak “s” txistukaria du.

Esanahia dela eta, ‘begi-okerra, begi-okertua, begi-makurra’ adierazi nahi du. Ohartzekoa da *begi* hitzarekin bakarrik erabiltzen dela.

- *Ixilik eon ai, urde beieskela!* (Ixilik egon hadi, urde begiezkela!)
- *Belarriaundi beieskel ori zertara eldu da?* (Belarrihandi begiezkel hori zertara heldu da [= dator]?)

Belarriaundi, belarriluze

Iraintzeko lehenbiziko aldaera da gehien erabiltzen dena, ondokoak beste adiera batzuk hartu baititu.

- *Kuxkuxen ai da oain e belarriluze zikin ori!* (Kuxkuxean ari da orain ere belarriluze zikin hori!)
- *Oain e (e)torri al da belarriaundi zepel ori!* (Orain ere etorri al da belarrihandi zepel hori!)

Buruaundi (buruhandi)

Aieka guzietan maldiziotako erabil daitekeen hitz elkartua da.

- *Zu bezalako buruaundik ze iñen dute, ba!* (Zu bezalako buruhandiek zer eginen dute, bada!)
- *Au buruaundi zepela!* (Hau buruhandi zepela!)

Epurdiaundi (ipurdihandi)

Aurrekoa bezala, gorputzeko atal baten aipamena eginez sortutako sakrea da. Jakina, ipurdia potzoloa duen norbaiti bota dakioker horrelako iraina.

- *Epurdiandi orrek billatuko do tokia, bai, non o an muturra sartzeko!* (Ipurdihandi horrek bilatuko du tokia, bai, non edo han muturra sartzeko!)

Iartu (ihartu)

Pertsoneri esaten zaienean maldiziotako har daiteke. Norbait mehea dela adierazteko *iar* (ihar) ere erabiltzen da, baina iraintzeko *iartu* (ihartu) da ohikoena (cf. Luzaideko *ihartu*, Kamino & Salaberrri & Zubiri, 2004).

- *Iartu zorrizu orreri nola (e)san bar tzio ez muitzeko!* (Ihartu zorrizu horri nola esan behar zaio ez mugitzeko!)
- *Zoz emendik alantako lepame iartua!* (Zoaz hemendik alantako lepame ihartua!)

Lepaiar, lepame (lepaihar, lepamehe)

Ihar eta *mehe* izenondoekin eraturako hitza da. Gorputzeko beste hainbat atali bezala eransten zaio *lepo* izenari ere (hitz elkartuen arau orokorra jarraituz: *lepo-* > *lepa-*):

- *Zu bezalako lepame iartu batzuk besteik eztia ibiltzen tenore ortan kanpon!* (Zu bezalako lepame ihartu batzuk besterik ez dira ibiltzen tenore horretan kanpoan!)

- *Erki berotuko nike bizkarrezurra lepaiar iartu orreri!* (Ederki berotuko nioke bizkarrezurra lepaihar ihartu horri!)

Mutur, muturzikin, muturluze

Mutur hitza animalien bisajeari deitzeko erabiltzen da, ez gizakiena adierazteko (honetarako *arpei* ‘aurpegi’ hitza baitarabilgu), baina zentzu txarrean norbaitez aritzeko *mutur* hitzera jotzen da.

Euskal Herrian zabaldua dago adiera hau.

- *Ori muturra do orrek; oain e aurea artu diu!* (Hori muturra du horrek; orain ere aurea hartu digu!)
- *Muturzikiñ orrek ze (e)san dizo?* (Muturzikin horrek zer esan dizu?)
- *Muturluze ori re tarten sartu bear!* (Muturluze hori ere tartean sartu behar!)

Ortzamakets (hortz makets)

Hitz honetan ez da izenak daraman artikulua erortzen, gehiago esanen dugu, azentu nagusia bertan paratzen da (ortzá-), nahiz eta bakarrik doanean erroak eramaten duen beti (órtz-a). Badirudi, beraz, hitz elkartu moduan jokutzen duenean, artikulua hartuz, azentua bigarren silaba honetara igarotzen dela, ahoskatzeko zailtasunengatik, ziur aski.

Goitixeago aipatu dugu *eskel* izenondoa *begi* hitzarekin bakararekin erabiltzen dela; oraingo honekin ere antzetsura gertatzen da, hau da, *makets* izenondoa *hortz* izenarekin bakarrik ibiltzen da.

Esanahia dela eta, ‘hortzak falta dituen edo akatsak dituen’ adiera du.

- *Bi matalezurreko emain nittike ortzamakets kakazu orreri!* (Bi matalezurreko emanen nitioke hortz makets kakazu horri!)
- *Urde ortzamakets surrukerra!* (Urde hortz makets sudur-okerra!)

Tripaundi, tripontzi (tripandi, tripontzi)

Ezagunak eta zabalduak euskalki guztietan, *tripa* + *handi* eta *tripa* + *ontzi* hitzak elkartuz osatutakoak dira.

- *Tripaundi nazkarri orrek (e)santakori in bear dizo kaso?* (Tripaundi nazkagarri horrek esandakoari egin behar diozu kasu?)
- *Eztuk plateran askoik utziko, ez, urde aultzaundi tripontzia!* (Ez duk plateran askorik utziko, ez, urde ahutz-handi tripontzia!)

* * *

Zenbaitetan, gorputz atalaren izena zuzenean esan beharrean, beste izen batzuetara jotzen da, duten nolabaiteko antzogatik edo. Laidoztatzeko moduan emandakoak dira honako hauek:

Arbztak (= hankak)

Arbztak, berez, ‘adar txikiak, meheak’ dira; hanka iharrak dituen norbaiti esateko erabiltzen da.

- *Orrek ttik orrek arbztak!* (Horrek ditik horrek arbztak!)
- *Arbztaz oriek ze indarra bear ditek! Putzan urrengo!* (Arbztaz horiek zer indarra behar ditek! Putzaren hurrengo!)

Gazta (= burua)

Arrunt ezaguna eta zabaldua. Bestelako esanahia du hitz honek *gazta-usaia* ‘gazta-usaina’ hitz elkartuan; gaztelaniatik zuzenean iraulitako kalko honetan “oinek edo oinetakoek botatzen duten usaina” adierazi nahi da. Baina aipatzen ari garen adibide honetan *gazta* hitzak buruari egiten dio erreferentzia, bere borobiltasunagatik edo.

- *Gazta galanta dik orretzek!* (Gazta galanta dik horretzek!)
- *Zertako duk gazta ori, zapela eramateko?* (Zertako duk gazta hori, txapela eramateko?)
- *Lapagainean gazta* (Perurena, 1993: 160)
- *Horixe dun gaurko gaitza: lepagaíneko gazta ustelduan ez beste edozein lekutan dagoela uste jendeak gaitza* (Perurena, 1993: 160)

Meloi (= burua)

Gaztelaniatik zuzenean hartutako metafora da honako hau.

- *Au meloia do!* (Hau meloia du!)
- *Zerbettetako ibilli bearke duk ba lepagaíneko meloi ori!* (Zerbaitetarako ibili beharko duk ba lepagaíneko meloi hori!)

b) Entzuleen nortasunari erreferentzia egiten diotenak

Ondoren aipatuko ditugun hauek ezaugarri ez fisikoei egiten diete erreferentzia, nahiz eta, askotan, madarikazioaren helburu denak edo direnak ta-sun hauek ez izan. Jakina denez, haserrealdietan eta irain kontuetan, direnak eta ez direnak botatzen dira, ahal den minik handiena egiteko xedearekin, eta horretarako burura bat-batean etortzen diren baliabide guztietara jotzen da. Hona arlo honetan bildu dugun saila.

Alu

Alua hitzak ez du emakumeen sexu-organoa adierazi nahi; orokorra da, eta edozeini egin diezaioke erreferentzia, bai emakumezkoari bai gizasemezkoari. Sarasolak bere hiztegian biltzen duenez ‘esangura zehatzik gabeko irain hitza’ da.

- *Alu kakazua, ori itteko aña izaki!* (Alu kakazua, hori egiteko adina izaki!)
- *Txoro alua i, ez al dit esan berriz ez itteko!* (Txoro alua hi, ez al diat esan berriz ez egiteko!)
- *Holaxeko ardailak ibili dizkinat urde alu horrekin* (Perurena, 1993: 156)

Aluita (alubita)

OEHn, argitasun handirik eman gabe, *aluita*, *alu(b)ita* hitzak agertzen dira ‘voz despreciativa’ dela esanez; badirudi *alu* hitzetik eratorritako aldaera bat baizik ez dela. Esanahiaren aldetik aurrekoaren parekoa da, arinxegoa agian.

- *Euli aluita onek e(z) no pake(ta)n uzten!* (Euli alubita honek ez nau pake(t)an uzten!)
- *Etzula torri bear ta aluita zikin ora (e)torri orretik!* (Ez zuela etorri behar eta alubita zikin hura etorri horratik!)
- *Halere, halere, nola hitzegin orde! Alubita uxea!* (Perurena, 1993: 154)

- *Ez hunan holako putz haundirik esan lehengoan telefonotik! Alubita, alena, hi!* (Perurena, 1993: 259)

Alux, aluxa

Alu hitzaren beste aldaera batzuk ditugu honako hauek.

- *Esku ederretan utzi nindunan alux horrek!* (Perurena, 1993: 251)
- *Baina, nola hitzegin gainera, alubita horrek! Hori dun aluxa, hori!* (Perurena, 1993: 153)

Antsikabe

Hitz hau *antsia(rik)* eta *gabe* posposizioa lotuz osatu da. Esanahiari erreparatuz, alde batetik, ‘barrenik, hondorik gabea’ adierazten du, eta bestetik, adiera zabalagoa eta zehaztugabeagoa du, ‘axolagabea, arduragabea’-ren tankeratsukoa.

- *Dena ik yan bar al duk! Utzi ziaik niri pixko bat alantako urde bekets antsikabea!* (Dena hik jan behar al duk! Utzi iezadak niri pixka bat alentako urde bekets antsikabea!)
- *Aztalak ederki berotuta joan beharko zenuke, bestenaz! Antsikabeak, alenak, beti gure atarian karramixtaka jarrita!* (Perurena, 1993: 208-9)

Aozabal (ahozabal)

Ezaugarri fisikoa adieraztetik izaeraren eremura igaro da, ‘gehiegi, behar baino gehiago hitz egiten duena’ adieraztera (Luzaideko *ahoaundia*-ren parekoa). Hona nola erabiltzen duen P. Perurenak:

- *Batzutan lotsatu eta guzi egiten ninunan neska, hark esaten zituenak entzunda aldamenean zeudenak zer esanen zuten pentsatuz. Hori dun ahozabala, hori. Beti gauza bera egiten din: behatza bada eskua esan* (1993: 269)
- *Emateko eta emateko; eta emanda gero kontari, ahozabal zeri hori!* (1993: 252)

Arro, arroputz (harro, harroputz)

Arro hitza, berez, iraintzeko ez izan arren, testuinguru egokietan halakotzat har daiteke. Bigarrena, ordea, *harroputz* alegia, hitz elkartua da: *harro* + *putz*; eta esanahiaren aldetik ‘harro’ izenondoari beste ñabardura bat ematen dio, beste irain kutsu nabari bat.

- *Nolako pantaxik itten zittun arroputz orrek!* (Nolako pantaxiak egiten zituen harroputz horrek!)
- *...horiek baitira haien bazterketa guztien iturri, horiek beren arerio; txula harroputz zikin horiek etsairik madarikatuena* (Perurena, 1993: 78)

Artaburu

Sakretako erabiltzen denean argi gutxiko pertsonaz esaten den irain hitza da.

- *Artaburu ortan ze kabittu bear do!* (Artaburu horretan zer kabitu behar du!)

- *Orrek dun artaburukin enuk arritzen atzentzea!* (Horrek duen artaburuarekin ez nauk harritzen atzentzea!)
- *Alantako zepel artaburua, i!* (Alentako zepel artaburua, hi!)

Asto, astakirten, astalore, astapito, astapotro, astapuska, astazakill

Itxuraz eta izatez desberdinak diren arren, denek dute *asto* hitza oinarritako eta, batzuek, hemen sinonimotzat har dezakegun *kirten*, *pito*, *zakil* bigarren osagaitzat. *Potro*-ren adiera, bestalde, ez dabilkie sobera urruti. *Asto* izenak bi adiera izan ditzake: 1. karga, zama gehiegi eramaten duena; 2. inozoa, inozentea, tuntuna, tentela.

- *Au da au astoa, ori dena nola karraittuko zo ba!* (Hau da hau astoa, hori dena nola garraiatuko duzu ba!)
- *Zu bezelako astori pasatuko zkio, bai, olokok!* (Zu bezalako astoari pasatuko zaizkio, bai, horrelakoak!)

Gainerako hitz elkartu guztiak hortxe-hortxe dabilta *asto* izenaren bigarren esanahiaren ingurutsuan. Maiztasunaren aldetik, Goizuetan gehiago erabiltzen dira, beharbada, *astazakill* (edo *astazikill* aldaera) eta *astakirten* formak besteak baino. Hala ere, nabarmenagoa da, soinuari dagokionez, *astapotro* izena.

- *Au demonio astazakilla!* (Hau demonio astazakila!)
- *I bezelako astakirten batek ze in bar di(k) pa!* (Hi bezalako astakirten batek zer egin behar dik ba!)
- *Astapotro galanta da ori* (Astapotro galanta da hori)
- *Oloko astapito bat bear dik ori itteko!* (Horrelako astapito bat behar dik hori egiteko!)
- *Gizajo astapuska! Ez horixe merezi duena, haur baten kulparik ez duen gizona!* (Perurera, 1993: 225)

Aipatu ditugun hauek gutxi gorabehera esanahi berdintsua dute, baina goiko izenburuan paratu dugun *astalore* hitzak bestelako adiera du, esan nahi baita arinagoa dela besteak baino; honen parekotzat jo daiteke aurreraxeago dakargun *babalore* hitza ere.

- *Utzi zik paken, astalore utsa duk eta!* (Utz iezaiok pakean, astalore hutsa duk eta!)

Azkenkarena

Arrunt gutxi aditua Goizuetan, baina erabiltzen dutenek diotenez maldizio larrietako bat da. Hasteko, hona *karen* hitzaren definizioa Sarasolaren hiztegiaren arabera: “Abereek umeak edo emakumeak ume bat izan ondoan botatzen duen mintza, ume ondokoak”.

Guri emandako azalpenaren arabera, zerramak umeak egiten dituenan, dozena inguru, azkenekoa, gehienetan oso gaizki eta erruz edo akatsez josia ateratzen omen da, hain zuzen ere azkeneko karen horrekin arazoak izaten direlako. Horregatik, norbaiti *azkenkarena* deitzea ajez eta gabeziaz betea dagoela esatea omen da.

- *Ixilik eon (a)di, azkenkarena, i!* (Ixilik egon hadi, azkenkarena, hi!)
- *Ajez yositako azkenkarena besteik etza ta!* (Ajez yositako azkenkarena besterik ez zara eta!)

Babalore

Hitz honek eta goitixeago aipatu dugun *astalore* hitzak antzeko esanahia dute: inoxentea, inozoa, ongi “aklaratzen” edo bereizten ez dena...

- *Au duk au paxintxik³ ereitten ttun babalorea!* (Hau duk hau pazientziak ereiten dituen babalorea!)
- *Babalore ergel orrek inen tto aundiok!* (Babalore ergel horrek eginen ditu handiagoak!)

Babu

Hitz honek ‘ergela, inozoa, fundametu handirik gabekoa...’ esan nahi du; ez da oso erabilia Goizuetan.

- *Au demonio babua!* (Hau demonio baboa!)
- *Babu ergel orrek ze in bar do kargu ortan!* (Babu ergel horrek zer egin behar du kargu horretan!)
- *Nik ez zekinat besteok babuak garela edo zer uste duen horrek* (Perurena, 1993: 88)

Barrabillaundi (barrabilandi)

Hitz elkartu gardena da. Esanahiaren aldetik *gibelaundi*, *potroaundia*-ren kidekoa da.

- *Ori barrabillaundia! Oaindik ezto golpeik yo!* (Hori barrabilandia! Oraindik ez du kolperik jo!)
- *Barrabillaundi ori muite ordu illunduko diu!* (Barrabilandi hori muite ordu ilunduko digu!)

Bixiu (bixigu)

Berez arrunt ezaguna den itsasarraina da, baina nolabaiteko irain airea ere har dezake. Zenbaitetan aurpegiaren edo begien itxuraz edota koloreaz jarduteko erabiltzen da, eta beste batzuetan “inozo, tuntun, artalore” esanahia-ekin.

- *Bixiu arpei orrekin nora (y)oa?* (Bisigu aurpegi horrekin nora hoa?)
- *Au duk au bixiua! Fundamentu erra in duk!* (Hau duk hau bixigua! Fundamentu ederra egin duk!)

Burugabe

Hitzak berak adierazten duen bezala ‘talentu, fundamentu gutxiko pertsona, inozoa, ergela’ da *burugabea*, edo bai eta ‘gauzak maiz ahanzten dituen’ ere; *buru* izenarekin eta *gabe* posposizioarekin osatua dago.

- *Bai pertsonan burugabea dela ori! Dena aztutzen zio!* (Bai pertsonaren burugabea dela hori! Dena ahanzten zaiol!)
- *Ohi bezalako burugabe askoren kontura dirua gozo gozo egin dezaten* (Perurena, 1993: 221)

³ *Paxintxiak*: horrela deitzen zitzaizen garai batean –bai eta oraindik ere– saltzen ziren pastel txiki biribil konkordun batzuei. Ikus OEH, *pazientzia* sarrera, XIII, 921 or.

Buztanaundi, buztanbero

Osakeraz gardenak dira bi izen elkartuok, eta esanahiaz ere aski garbiak. Agian zehaztu beharko da *buztanbero* hitzak emakumeekiko zaletasuna-edo adierazten duela.

- *Buztanaundi putanero orrek itteko ezta arritzekoa! Estadun utzi emakumea!* (Buztanandi putanero horrek egiteko ez da harritzekoa! Estaduan utzi emakumea!)
- *...ze sermoia bota zinan “Oilarra” deitzen genion Antonio buztanbero alu hark* (Perurena, 1993: 126)
- *...urdanga baten moduan, bidean harrapatzen ditudan buztanbero guzietan gorpuzka eskainiz!* (Perurena, 1993: 155)

Demoniarre

Irain hitz arinetakoa da, *alu* edo *aluita* hitzen esanahikidetsukoa.

- *Demoniarre alua! Oain e aientu duk deus esan gabe!* (Demoniarre alua! Orain ere aienatu duk deus ere esan gabe!)
- *...eta Sartrek esandako lau txorakeria aldrebestu baizik ez zuela egin ziraun demoniarre hark* (Perurena, 1993: 28)

Enbustero/-a

Gaztelaniatik hartutako izenondoa dugu, gainera maskulinoan eta femeninoan erabiltzen da, sexuaren arabera.

- *Gezurtero enbustero zikin orrek esatekoa ezta aundia!* (Gezurtero enbustero zikin horrek esatekoa ez da handia!)
- *Sinistuko dinat, porlos! Hi ze enbustera haizenan jakinen ez banu bezala!* (Perurena, 1993: 186)

Erdezu (lerdezu)

Goizuetan *erde* ‘lerde’ erabiltzen da, hasierako [l-] albokaririk gabe. Berez, ez da, sail honetan aipatzen diren beste hainbat bezala, biraotako ibiltzen, baina halakotzat hartzen da testuinguru egokietan txertatzen bada.

- *Motiko mukizu erdezu bat izaki ta orrela kontestu bear!* (Mutiko mukizu erdezu bat izaki eta horrela kontestatu behar!)
- *Aure erdezu nazkarri bat arrimatu zizian* (Agure erdezu nazkagarri bat arrimatu zitzaidan)

Ergel

“Zentzu edo adimen txikikoa, zentzugabeki mintzatzen edo aritzen dena” da *ergela* hiztegiak dioenez; irain alor honetan usu erabiltzen den hitza da honako hau.

- *Alantako txoro ergelak, nola inen tzute ba ori!* (Alentako txoro ergelak, nola eginen duzue, bada, hori!)
- *Txoro ergel batzuk aittu dia goizeko seik arte kantari* (Txoro ergel batzuk aritu dira goizeko seiak arte kantari)
- *Señorita politta dun ba hori, demonio uxtes zikin hori! aixeputx ipurtarro ergel hori!* (Perurena, 1993: 196)

Espantoso

Espantu handiak ateratzen edo egiten dituen (cf. gure aurreko lanean, Luzaideko *espantuaundi*). Hitz hau, berez, ez da erabiltzen iraintzeko, baina halakotako har daiteke.

- *Au espantoso, bi sosen miña izaki eta bosten espa(ra)drapua patu bear!* (Hau espantoso, bi sosen mina izaki eta bosten esparadrapua paratu behar!)
- *Zu biño gizon espantosoik eztut iñon kusi!* (Zu baino gizon espantosoagorik ez dut inon ikusi!)

Fanfarroi

Gaztelaniatik egokitutako hitza.

- *Fanfarroi arroputz ori atere da berriz presidente!* (Fanfarroi harroputz hori atera da berriz ere presidente!)
- *A ze eskarmentua artu bear duna txulo fanfarroi zikin orrek!* (A zer eskarmentua hartu behar duena txulo fanfarroi zikin horrek!)

Faltso

Goizuetar guztiek ezagun dute harako “...hitzak ederrak, bihotza faltso...” ez oraintzeko Trabukoren abestiaren letra. Iraintzeko ere erabiltzen da, jakina.

- *Ori biño gizon faltso eta enbusteroik etzo iñon e arrapatuko!* (Hori baino gizon faltso eta enbusteroagorik ez duzu inon harrapatuko!)
- *...ideia faltso zikin batzuk besterik ez ditun...* (Perurena, 1993: 108)

Gaixo

Emakumeei eta umei esaten zaien hitza da, gizasemeentzat nahiago da *gizajo*; ez da bereziki irain-hitza, errukia gehiago adierazten du beste edozein gauza baino.

- *Senide guzik il zkie eta bakarrik geldittu da. Ze in bar do oain emakume gaixo orrek!* (Senide guztiak hil zaizkie eta bakarrik gelditu da. Zer egin behar du orain emakume gaixo horrek!)
- *Gaixo zurekikoa, lekutan daude zure asmo aiek!* (Gaixo zurekikoa, lekutan daude zure asmo haiek!)
- *Gaixorrek, iñen al diazo mesede ttiki bat?* (Gaixorrek, eginen al didazu mesede txiki bat?)

Gezurtero/-a, gezurtioso/-a

Aipatutako hitzok esanahi berdintsua dute: gezurrak esaten dituenari edo gezurrak esateko joera duenari deitzen zaio horrela. Bi aldaerak gaztelaniatzko generoarekin ematen dira, nori zuzentzen zaizkion (edo gizasemezkoari edo emakumezkoari); ikusten den bezala atzizki desberdinez osatzen dira, batean *-ero-z* (cf. *putanero*, *tripero*...) eta bestean *-oso-z* (cf. *potroso*, *mañoso*...).

- *Gezurtero galanta da ori! Ezto sekulan eik esaten!* (Gezurtero galanta da hori! Ez du sekulan egirik esaten!)

- *Gezurtioso faltso zikiña! Oain e bota zo gezur erra!* (Gezurtioso faltso zikina! Orain ere bota duzu gezur ederra!)
- *...azkazalak pintatzeari ekin omen zionaten, denek arruntean, gezurtiosak zirela esan ez zezan* (Perurena, 1993: 82)

Gibelaundi (gibelhandi)

Osatzez, gorputz atal batekin (*gibel*) eta izenondo batekin (*handi*) osatua da hitz hau, baina izaeraren ezaugarria gehiago adierazten du gorputzarena baino, *alfer*-en parekoagoa baita beste deus baino; edo hobeki esateko, gauzak patxada gehiegiz hartzen dituen da. Esanahiaren aldetik *potroaundi* beste irain hitzaren parekoa da, nahiz eta azken honek bestelako ozentasuna duen. Ez da ahantzi behar Euskal Herriko ekialdean *gibel* hitzak “atze” ere esan nahi duela (eta hortik, “ipurdi”).

- *Alantako gibelaundia! Ze aittu yaiz oain arte, potro-yorran?* (Alentako gibelhandia! Zer aritu haiz orain arte, potro-jorran?)
- *Urde gibelaundia, ire(a)tik autobusa eskapatu ziuk ta oain taxia artu bear!* (Urde gibelhandia, hiregatik autobusa eskapatu zaiguk eta orain taxia hartu behar!)

Gizajo, gizaxo (gizagaixo)

Gizonezkoentzat erabiltzen dira, emakumezkoentzat *gaixo* nahiago baita (ikus sarrera hau). Aldaera bustia ere ager daiteke: *gixajo*. Goizuetan oso irain hitz arinak dira, gaztelaniazko “pobrecito”-ren paretsukoak.

- *Ze iñen dizo orreri, gizajo utsa da ta!* (Zer eginen diozu horri, gizajo hutsa da eta!)
- *Ez hire gizona delako, baina, beti izandu dun gizajo samarra, eta gaur oraindik ere lehengoan segituko duela pentsatzen dinat* (Perurena, 1993: 212)
- *Orrelako gizaxori pasatuko zkite, bai, aundiok!* (Horrelako gizaxoei pasatuko zaizkie, bai, handiagoak!)

Inbidioso/-a

Gaztelaniatik hartutako hitza, generoa eta guzti.

- *Inbidioso zikin nazkarri ori aitzen da olokok esaten!* (Inbidioso zikin nazkagarri hori aritzen da horrelakoak esaten!)
- *Emakumeak harroak eta inbidiosak dituzu horretan* (Perurena, 1993: 158)

Intxixu

Berez, euskal mitologiako izakia da, eta hiztegiaren arabera “aztia, sorginaren ahalmenak dituen gizonezkoa”, baina Goizuetan norbait iraintzeko erabiltzen da ongi zehaztugabeko esanahiarekin. Gaur egun arrunt gutxi aditzen den irain hitza da.

- *Usu ta fite aientu zen andik alu intxixu ora!* (Usu eta fite aienatu zen handik alu intxixu hura!)
- *Zaude geldik, zorrizu intxixua, zu!* (Zaude geldirik, zorrizu intxixua, zu!)

Ipurterre

Bi hitzez osatutako izenondoa: *ipurdi* + *erre*. Aipatzekoa da hitz elkartu honen lehenbiziko osagaia, bakarka ematen denean, *epurdi* dela eta ez *ipurdi*.

- *Zu biño ipurterreoik eztut inon ekusi!* (Zu baino ipurterreagorik ez dut inon ikusi!)
- *Ez ninan sinistuko ere, hain barrengaitza zenik!, hain erretxina, hain ipurterrea eta hain petrala zenik!* (Perurena, 1993: 269)

Itzontzi (hitzontzi)

Formaren aldetik, *hitz* + *ontzi* izenak zuzen-zuzenean lotuz osatua dago; eta esanahiaren aldetik, ‘asko hitz egiten duena, berritsua’ adierazi nahi du.

- *Erretolika politta do itzontzi zikin orrek!*
- *Noiz isildu behar ote du neska berritsu hitzontzi harropux horrek?* (Perurena, 1993: 137)

Kabroi

Gaztelaniatik hartua, eta orokorra; esanahiaren aldetik gaztelaniakoaren parekoa da.

- *Urde kabroi alakoa, i!*
- *Kabroi galanta da ori!*

Kaiku

Definizioz “ergela, adimen laburrekoa” da, baina *tonto*, *inozo*-ren pareko ere izan daiteke.

- *Demonio kaikua, i!*
- *Urde kaikua, zertara torri za onara?* (Urde kaikua, zertara etorri zara hona?)

Kakalardo, kakalikardo

Kakalardo, berez, intsektu baten izena da, baina, segur aski hotsen analogiatik eta bere sonoritateagatik, iraintzeko ere erabiltzen da norbaiti zuzentzen zaionean. Honen beste aldaera bat ere aurkitu dugu: *kakalikardo*. Adieraren aldetik, *tontoa*, *inozoa*, *fundamenturik gabekoa* edo antzekoen eremuan sartuko litzateke.

- *Au demonio kakalardoa!* (Hau demonio kakalardoa!)
- *Txotxolo kakalikardo orrek ze in do oain!* (Txotxolo kakalikardo horrek zer egin du orain!)

Kankallu (kankailu)

Testuinguru egokian irain-hiztako har daiteke. Adierari dagokionez, ‘handia, handikotea, baldarra’ esan nahi du.

- *Tirada politta do alu kankallu orrek!* (Tirada polita du alu kankailu horrek!)
- *Kankallu zarri ori aixa alletuko da orrara!* (Kankailu zerri hori aise ailegatuko da horra!)

Kakazu

Orokorra da. *Txikia* adiera ere izan dezake *beira ze martingalak ttun kakazu orrek!* (“Begira zer martingalak dituen kakazu horrek!”) bezalako esaldietan.

- *Ume xaor kakazu batzuk ai zian arri tiraka* (Ume xabor kakazu batzuk ari ziren harri tiraka)
- *Erra in zeak! Alu zorrizu mukizu kakazua!* (Ederra egin zidak! Alu zorrizu mukizu kakazua!)
- *Ume kakazu horiek orain ere hor al dabilta?* (Perurena, 1993: 208)

Kakerrea

‘Piper errea, ipurterrea’, ‘jenio txarreko joera duena’ esanahiak ditu, besteak beste:

- *Iñon e geldittu ezin yitzan kakerrea yaiz i ta!* (Inon ere gelditu ezin haizen kakerrea haiz hi eta!)
- *Zu bezelako kakerreik eztut ezautu* (Zu bezalako kakerrerik ez dut ezagutu)

Kakontzi

Berez, kaka ugari egiten duena da; hurrei esaten zaie askotan, eta iseka arintako ere har daiteke.

- *Kakontzi zikiña, galtza guzik zikindu ttizo!* (Kakontzi zikina, galtza guztiak zikindu dituzu!)
- *Kakontzi zirindu ori berriz e zarrikirik itten ai da!* (Kakontzi zirindu hori berriz ere zerrikeriak egiten ari da!)

Kapritxoso/-a

Gaztelaniatik zuzenean, genero eta guzti, hartutako hitza.

- *Umemoko kapritxoso orreri dena aontu bear al dizo?* (Umemoko kapritxoso horri dena agoantatu behar al diozu?)
- *Badakin ze kapritxosa den. Ez hire koinata delako, baina, bai kapritxosa eta pantasiosa!* (Perurena, 1993: 183)

Kasketoso/-a

Kasketa asko harrapatzen edo izaten dituen da. Beste hainbat hitzetan agertzen den *-oso/-a* bukaerak ugaritasuna adierazten du (cf. *latoso, temoso, setoso...*); jakina, gaztelaniazko generoa mantentzen da.

- *Bai motikon kasketosoa!* (Bai motikoaren kasketosoa!)
- *Gizon ori biño kasketosoik eztut ezautu!* (Gizon hori baino kasketosoa-gorik ez dut ezagutu!)

Latoso/-a

Gaztelaniatik zuzenean hartutako hitza da, bai formaz eta bai esanahiaz. Hortaz, gogaikarri edo aspergarria denari deitzen zaio horrela. Hitz honetan ere gaztelaniazko generoari eusten zaio.

- *Bai latosoa zala! Beingo utzi ziazu paken!* (Bai latosoa zarela! Behingo utzi iezadazu pakean!)

- *Ze latosoa den, beti kontu berakin heldu zit!* (Zein latosoa den, beti kontu berarekin heldu zait [datorkit]!)

Lotsa(a)be (lotsagabe)

Iraintzeko ere ibiltzen den hitza.

- *Zaude ixilik, alantako lotsabe zikiña!* (Zaude ixilik alentako lotsagabe zikina!)
- *Lotsabe mingainzikin ori asi da berriz e bazterrak zalabardatzen!* (Lotsagabe mingainzikin hori hasi da berriz ere bazterrak zalagardatzen⁴!)

Madarikatu

Lanez madarikatua nabil-en tankerako esaldiek norbait lanez itoa edo lanez gainezka dabilela esan nahi dute; baina “madarikatu” sakretako erabiltzen denean gaitzetsa eta txarrestea erakusten du. “Alu” hitzaren paretsuko izan daiteke.

- *Zertara eldu da berriz neregana urde madarikatu ori?* (Zertara heldu da berriz niregana urde madarikatu hori?)
- *Madarikatu zarri orreri deitzen dite gixajo?* (Madarikatu zerri horri deitzen diote gixajo?)

Mañontzi, mañoso/-a

Hitz hauetan ugaritasuna adierazten duten *-ontzi* eta *-oso/-a* atzizkiak (lehenbizikoari atziki dei bageniezaioke bederen) agertzen dira, esate bateko goitiago ikusitako *kakontzi* eta *espantoso* hitzetan bezalaxe; bigarren atzizkiak erdarazko generoa matentzen du. Maina ugari egiten duenari deitzen zaio horrela.

- *Au biño ume mañontzioikan eztut inon e kusi!* (Hau baino ume mainontziagorik ez dut inon ere ikusi!)
- *Mañoso setoso bat besteik etza!* (Mainoso setoso bat besterik ez zara!)
- *Ba, ez hadinala orain negarrez hasi niri, ez dinat barkatuko eta ume mainosaren dunduri triste horrenik* (Perurena, 1993: 50)

Mari- /-maistra, -mandona, -matraka, -mutil, -saltsera, -sorgiñ, -zikin...

Honatx Orotariko Euskal Hiztegiak zer dakarren **Mari** izenaren sarreran: «Nombre familiar femenino que se antepone a ciertos adjetivos para sustantivarlos y personificar el calificativo. *Mari-sorgiñ, mari-zikin, mari-arro, mari-guzurti, maribandera*, etc.».

Ondoren honako azpisarrera hauek denak ematen dira:

Mari-aker (marimacho), mari-ausarki, mari-bandera (mujer ligera de no muy buena fama, tiene más sentido peyorativo que *mari-mutil*), mari-bekaineko, maria-bideetako, mari-bistako, mari-bizar, mari-bonbil, mari gaizto, mari-gangar, mari-gixon, mari-gizon, mari-korotz, mari-maestra, mari-mai-

⁴ Goizuetan *zalabardatua* “nahasia, sakabanatua, hankaz goiti dagoena” da. Azkuek bere hiztegian *zalagardatu* jasotzen du: “1º (AN-lez), engañar, *tromper*. 2º (G) echar a perder un trabajo, *saveter un travail*.” Mugicak, berriz, hiru adiera ematen ditu: “1. AN = engañar, embaucar, trampear. 2. G estropear, echar a perder, chapucear. 3. embrozar, dejar las cosas sin terminar”.

su, mari-mandona, mari-matraka, mari-mortzil, mari-motrailu, mari-muiroko, mari-munduko, mari-mutiko, mari-mutil, mari-petral, mari-puntta, mari-purtzil, mari-sorgin, mari-tente, mari-txindoki, mari-txirdil, mari-urdin, mari-urra, mari-zikin, mari-zilipitirin, mari-zirtzil. (Xehetasun gehiagorako hiztegiara jo).

Hitz hauen eraketari dagokionez, zehaztu behar da *mari* (< Maria) izen hau, OEHN esaten den bezala, zenbait izenondoren aurretik ez ezik (cf. *marimandona*, *marimatraka*, *marisaltsera*, *marizikin*...), beste zenbait izenen aurretik ere joan ohi dela (cf. *marigizon*, *marimaistra*, *marimutil*, *marisorgin*...).

Esanahiari dagokionez, esanen genuke, oro har, *mari* honek ondotik datorkion izenkiarekiko zaletasuna edo joera adierazten duela; horrela, *marimaistra* da agindu edo azalpen ugari emateko joera duena, *marimutil* mutilekiko zaletasuna duena edo mutil-antzako ibilera, izaera, jokaera... duena, Lesakan jaso dugun *marileio* 'leihoan kuxkuxean denbora asko igarotzen duena' da, haur literaturgintzan agertzen den *marikanela* kanela asko gustatzen zaion neska, e.a. Beste zenbaitetan, laguntzen duen izenkiaren esanahia areagotzeko erabiltzen da (cf. *marimatraka*, neska matraka dela nabarmentzeko, *marisorgin* sorgin hutsa dela azpimarratzeko, e.a.).

Erabilerari dagokionez, emakumei esateko erabiltzen dira hitz hauek denak. Gure helburua ez da eztabaidetan sartzea, baina hona bi-hiru ideia solte P. Perurenaren ahotik emanak sexu bereizketa hau dela eta:

Hik orduan debekatu eginen hitunake, konparazio batera, *marizikin*, *marisaltsera*, *marimaistra*, *marimutil*, *marisorgin*, *mariergel*, *maritxoro*, *marikotxina*, *maribuztan*, *mariapain*, *mariuxte*, *marizaldar*, *marizoko*, *mari-xabar*, *marialfer*, *maribero*, eta beste honelako mila mari eder. Zergatik eta, sexistak direlako, hala! Eta jakina, beste horrenbeste egin beharko hunake, *pellokirten*, *pellobuztan*, *pellomari*, *marikita*, *andregixon*, *peruabarka*, *peruzaldar*, *astazakil* eta beste hainbesterekin.

...

Gero, gainera, esaten dun, emakumei beti animaliarekin konparatuz egiten zaiola maxi, *urdanga*, *oilaloka*, *zerrama* eta horrelakoak esanez. Eta gizonari ez al zaio beste horrenbeste egiten, *aketza*, *apotea*, *oilarra*, *astoa*, *aretzea*, *zikiroa*, *zezena*, *zakurra* eta beste holako mila izengoiti paratuz?

...

Hik errepara ezan honako adjetibo hauetan: *gaztaundia*, *aultzarmarioa*, *zepela*, *hankamotza*, *besamotza*, *begibakarra*, *putakumea*, *astazakilla*... Noiz aditu dion hik inori, emakume bati *gaztaundia* esaten, edo *begibakarra* esaten, edo *putalaba* esaten, edo *astapottottina* esaten? Sekulan ez Maria, sekulan ez!" (1993: 198-99)

Aipatu behar da *mari*-honek forma berriak sortzeko balio duela, sormenaren eta hizkuntzaren egokitasunaren arabera, Perurenak pasarte hauetan aipatzen dituen hainbat adibide lekuko (*mariergel*, *marialfer*...) edo beste toki batean ematen duen *maritxuringa* (1993: 206), edo goian eman dugun *marikanela*, e.a.

Goizuetan erabiltzen direnak honako hauek dira (seguru bakarren bat itzuriko zaigula baina): *marimandona* agintzea gustatzen zaiona, *marimaistra* *marimandona*-k duen zentzuaz landa, azalpen asko (zenbaitetan gehiegi)

ematen dituen, *marimatraka* baldar, handi, lodi, traketsa dela adierazteko, *marimutil* mutilak asko gustatzen zaizkiona edo mutilekin asko ibiltzen dena, *marisaltsera* saltsa guztietan sartzen dena, *marisorgiñ* bixi, erne, axkarra dena, *marizikin* erruz zikintzen dena.

- *Asi da gure itxeko marimandona berriz e aintzen!* (Hasi da gure etxeko marimandona berriz ere agintzen!)
- *Zu za zu, marimaistra! Etza iñoize ixiltzen!* (Zu zara zu, marimaistra! Ez zara inoiz ere ixiltzen!)
- *Au neska marimatraka! Ola nola ligatuko zo ba!* (Hau neska marimatraka! Horrela nola ligatuko duzu ba!)
- *Zu bezelako marimutil urdangakin aukeraik gabe giñake errin!* (Zu bezelako marimutil urdangekin aukerarik gabe ginategi herrian!)
- *Hi hago, marisaltsera polita egina, hi!* (Perurena, 1993: 193)
- *Marisorgiña zu! Oain e axioa in tzo!* (Marisorgina zu! Orain ere axioa egin duzu!)
- *Bai zala marizikiña! Dena zarri in tzo!* (Bai zarela marizikina! Dena zerrri egin duzu!)

Melontzio

Honen sinonimotako ondoko hauek eman daitezke: *zozo*, *inozo*, *asto*, *burubandi*. Garbi dago gaztelaniazko *meloncio* mailegua dela; gainera artikulurik gabe erabiltzen da.

- *Au duk au melontzio!* (Hau duk hau melontzio!)
- *Zozo melontzio orrek ze iñen do ba!* (Zozo melontzio horrek zer egingen du bada!)

Mingainzikin

Gaizki esaka aritzen denari edo maldizio asko botatzen dituenari esan daikio; beste toki batzuetako *ahozikin*, *agozikin*-en adierakidea da.

- *Atso mingainzikinak bezela ai zate tilipiti-talapa marmarren* (Atso mingainzikinak bezala ari zarete tilipiti-talapa marmarren)
- *Muturluze metete mingainzikin batzuk besteik etzate* (Muturluze metete mingainzikin batzuk besterik ez zarete!)
- *Izorratzea zeukan uxe mingaintzikin xital horrek!* (Perurena, 1993: 270)

Mixeule, mixeale, mixerable

Erdaratik egokitutako hitza, bai formaren aldetik eta bai esanahiarenetik ere.

- *Mixeule zikin oriek gañera arpeira botzeko kapaz izan dia?* (Miserable zikin horiek gainera aurpegira botatzeko kapaz izan dira?)
- *Ta zeinek esan ote die horiei berdintasunak inor libreago egiten duenik? Ai mixerableak!* Lotsaren zoztorrik balute, sikira! (Perurena, 1993: 160)

Miztoluze

Mizto hitzak, berez, bi esanahi ditu: 1. sugeek-eta duten mingain bikoitza, 2. sobera goraki hitz egiten dutenei edo ozenki oihuka aritzen direnei esaten zaie *mizto ederra* dutela. Hitz elkartu gardena da, *mingainluze*-ren parekoa esanahiaren aldetik, baina *mizto* izenak irain-kutsu handiagoa ematen dio.

- *Aundiok esain tto miztoluze lotsabe zikiñ orrek!* (Handiagoak esanen ditu miztoluze lotsagabe zikin horrek!)
- *Hi, lehen ez hintzenan horrelakoa, beste miztoluze horiek kutsatu haur-nate* (Perurena, 1993: 17)

Mokote

Esanahia dela eta *txoro*, *ergel* laido-hitzen parekoa da. Haurtzaro garaia-rekin lotuagoa badago ere (cf. *ume mokotea*), erabilera zabaldu egin da beste alor eta adin batzuetara.

- *Urde zarri mokote ori asi da berriz berek esaten!* (Urde zerri mokote hori hasi da berriz ere bereak esaten!)
- *Mokote ergel orreri ze kaso itten dizo?* (Mokote ergel horri zer kaso egi-ten diozu?)

Mokoso/-a

Gaztelaniatik zuzenean hartua da, genero eta guzti; gutxi erabiltzen da Goizuetan, joera handiagoa baita *mukizu* erabiltzeko. Ia beti haurrei zuzen-tzeko edo haurren itxura adierazteko izaten da.

- *Aur mokoso txar ori asi da berriz e nearrez* (Haur mokoso txar hori hasi da berriz ere negarrez)
- *Ez dinat gehiago kartarik eskribituko berriz hola heldu bahaiz neregana, ume mokosa baten moduan* (Perurena, 1993: 80)

Momolo

Mantso, trakets eta, askotan, handia den norbaiti edo zerbaiti deitzen zaio horrela. Honen antzeko esanahia duten bi adizki ere badira: *momotu* eta *momolotu*. Azken hau erabiltzen du, esaterako, adibide honetan P. Perurenak: “Estatu bakar Zuzenbidezkoan sinesteak askoz ere gehiago **momolotu** du jendearen gogo...” (1993: 135). Hortaz, *momotua* edo *momolotua* egotea *er-ne*, *arin*, *bizkor* ibiltzearen edo egotearen kontrakoak dira. Testuinguru egokian iraintako har daiteke.

- *Bélexe torriko zizo ergel fundamenturik gabeko momolo baldar ori!* (Berehalaxe etorriko zaizu fundamenturik gabeko momolo baldar hori!)
- *...txori ttiki kantarien orde z hipopotamo haundi momolo batzuk ikusiko genetiken...* (Perurena, 1993: 123)

Mukizu

Izenondo hau ere, aurreko *erdezu* eta *kakazu* hitzak bezalaxe, testuinguru egokian ibiliz gero birao antzekotzat har daiteke.

- *Ergel mukizu bat besteik ezta, biño uste do sandios dela!* (Ergel mukizu bat besterik ez da, baina uste du sandios dela!)
- *Emen al da oain e zorrizu mukizu ori!* (Hemen al da orain ere zorrizu mukizu hori!)

Mutur/-aundi, -beltz, -bero, -luze, -zorrotz

Mutur hitzak, oro har, animalien buruko aurreko aldea izendatzen du, pertsonentzat *arpéia* (edo *árpia*) ‘aurpegia’ erabiltzen baita. Horregatik, jen-

deari zuzentzerakoan *muturra*, edo kasu hauetan bezala *mutur* hitzetik eratorritako besteren bat (ikus goian aipatutakoak eta beste zenbait: *muturraundi*, *muturbeltz*, *muturbero*, *muturluze*, *muturzorrotz*, *muturje*...) erabiltzen denean txarresteko izan ohi da. Esapideak ere sortu dira *mutur* hitzean oinarrituz: *muturra sartu*, *mutur joka ibili*, *muturrez aurrera erori*, *muturrez mutur yarri*, *muturtu*...

Jakina, bakoitzak bere esanahia du, hitzaren bigarren osagaia zein den. *Muturraundi* aurpegi handia duena da, berez, baina zeinbatetan *muturluze*-ren pareko ere izan daiteke; bigarren hau *lotsagabe*, *ausarta*, *saltsero* hitzen kidesuko da. *Muturbeltz* eta *muturzorrotz* zenbaitetan tankeratsukoak izan daitezke, lehenbizikoa 'kopetilun, serio' esanahiarekin lotua dago alde bate-tik, eta bestetik aurpegiaren kolorea, traza adieraz dezake txarresteko moduan esaten denean; bigarrena, ordea, haserrearekin edota seriotasunarekin lotua-gogo dago. *Muturbero*-k hiru esanahi ditu gutxienez: 1. edaria gustatzen zaiona, edaten zaletua dena, 2. joka ibiltzeko edo besteri "itsasteko" joera duena, eta 3. ausarta, aurpegia emateko inolako oztoporik ez duena.

- *Zepel muturraundi ori ze ai da emen!* (Zepel mutur-handi hori zer ari da hemen!)
- *Biño ipurterre muturbeltz kopetillun alu orreri ze kasu in bar dik!* (Baina ipurterre muturbeltz kopetilun alu horri zer kasu egin behar diok!)
- ...*horixe bakarra behar hunake orain: beste muturbeltz hori dela medio estaduan gelditzea* (Perurena, 1993: 237)
- *Muturbero orrekin kontuz ibilli, audo itsasko zizo gero!* (Muturbero horrekin kontuz ibili, agudo itsatsiko zaizu gero!)
- *Orrelako muturluze eta saltseroik eztut mundun ekusi; leku guzitan eon bear!* (Horrelako muturluze eta saltserorik ez dut munduan ikusi; leku guztietan egon behar!)
- *Oloko maisu muturzorrotz eta zitalik eztut ezautu sekulan!* (Horrelako maisu muturzorrotz eta zitalik ez dut ezagutu sekulan!)

Nazkarri, nazkante (nazkagarri, nazkante)

Bi formak ibiltzen dira Goizuetan. Ikusten denez *nazka* hitzaren gainean eratu dira bi izenondoak; adiera "nazka ematen duena" da. Formari begiratu-tuz, berriz, bata (cf. *nazkarri* "nazkagarri") ohiko bidea jarraitzen duen hitz eratorria da, baina bestea bitxiagoa da, zeren euskal hitz bati (*nazka*-ri) gaztelaniazko *-nte* atzizkia (cf. *cargante*... eta Ataun aldeko *telekante* 'eztabaidan aritzea gogoko duena', A. Lertxundiren arabera) itsasten baitzaio:

- *Nazkarri zikiña! Mukik jaten!* (Nazkagarri zikina! Mukiak jaten!)
- *Galanki itzeiñen do, bai, nazkante zikiñ orrek!* (Galanki hitz eginen du, bai, nazkante zikin horrek!)

Ñaño (ñaño)

Hitz adierazkorra, berez, *nanoa*, *txikia* adierazten duena; alabaina askotan erabiltzen den testuinguruagatik edo, *fundamenturik gabekoa* ere esan nahi du guretzat:

- *Mukizu ergel ñaño orrek ze nai do?* (Mukizu ergel ñaño horrek zer nahi du?)

- *Beitu, ñaño ttattar orren ittekoa!* (Begiratu, ñaño ttattar horren egitekoa!)

Odolki

Inozente, inozo, zozo, zepel... hitzen parekoa da iraintako erabiltzen deanean; ez da, beraz, birao gogorretakoa, arina baizik.

- *Au demonio odolki zepela! Berriz e lengo arri beren zipatu⁵ za!* (Hau demonio odolki zepela! Berriz ere lehengo harri berean zipatu zara!)
- *I bai, i, odolkia! Ori biño grazi geixio bear dik txistea kontatzeko!* (Hi bai, hi, odolkia! Hori baino grazia gehixeago behar dik txistea kontatzeko!)

Ollo, ollanda, ollar (oilo, oilanda, oilar)

Ollo eta *ollanda* hitzek ‘koldar, beldurti’-ren esanahi bertsua dute.

- *I bezelako ollok ze palentti iñen dik ba!* (Hi bezelako oiloak zein balentria eginen dik bada!)
- *Ai, zu, alantako ollanda! Zertik etzinin in aurre ordun bertan!* (Ai, zu alantako oilanda! Zergatik ez zenion egin aurre orduan bertan!)
- *Nor engainatuko duela uste ote du oilanda ergel horrek?* (Perurena, 1993: 171)

Ollar hitzak, aldiz, ‘harroa’ adierazi nahi du.

- *Ala kontestu ziun ollarrak biño arroo yarrita!* (Hala kontestatu zigun oilarrak baino harroago jarrita!)

Paiao (pailazo)

Erdararik hartua da nola formaren aldetik hala esanahiaren aldetik.

- *Paiao txoro ori asi da berriz e ergelkerik itten!* (Pailaso txoro hori hasi da berriz ere ergelkeriak egiten!)
- *...hain zuzen ere horrexegatik: pailaso hutsak direlako* (Perurena, 1993: 62)

Pantasioso/-a

Gaztelaniatik geureganatutako mailegua da hau, *-oso/-a* atzizkia duena, beste hainbatek bezala. Harroa, harroputza den edo handi-ustea duen norbait adierazten du.

- *Alere burua tente aski ibilliko do, bai, pantasioso ergel orrek!* (Hala ere, burua tente aski ibiliko du, bai, pantasioso ergel horrek!)
- *Pantasi politta ibiltzen zinan ba, mutil guziak atzetik arrixtuka zituela. Hori dun pantasiosa hori, txula harroputz hori!* (Perurena, 1993: 183)

Pelele

Gaztelaniatik hartua zuzen-zuzenean. Hemen dakargun bigarren adibidean *-ito/-a* atzikiarekin agertzen zaigu.

- *Kusten al tzo ergel txoro pelele orren ittekoa!* (Ikusten al duzu ergel txoro pelele horren egitekoa!)
- *...edo dena delako pelezita horrek esan al dizkin?* (Perurena, 1993: 126)

⁵ *Zipatu* edo *zipo* egin. Azentua lehenbiziko silaban darama; *behaztopatu* esan nahi du.

Pixontzi, pizontzi

Pixa erruz egiten duena. Aldaera normalena bustidura duena da (*pixon-tzi*); bestea, berriz, markatua da. Hurrei askotan esaten zaie, baina iseka modura ere erabil daiteke.

- *Pixontzi au bi trago artu orduko asten da pixa arraka!* (Pixontzi hau bi trago hartu orduko hasten da pixa arraka [pixa dariola]!)
- *Pizontzi zikiña! Nola inen tzo ba oloko pixazorroa aten ondon!* (Pizontzi zikiña! Nola eginen duzu bada horrelako pixazorroa atearen ondoan!)

Potroaundi (potrohandi)

Honako hau *gibelaundi* hitzaren parekoa da esanahiari dagokionez, baina gogorragoa dela ematen du hotsez eta adieraz.

- *Urde potroaundia! Berriz e aziko zkizo arrautzak!* (Urde potrohandia! Berriz ere haziko zaizkizu arrautzak!)
- *Potroaundi alu ori ez duk oaindik alletu!* (Potrohandi alu hori ez duk oraindik ailegatu!)
- *Eta takoi altuen kontua ere gizon “potroaundi” horiek inposatutakoa dela esanen didan hik!* (Perurena, 1993: 33)

Potroso

Osagaiak, bistan denez, *potro* ‘barrabila’ + *-oso* atzizkia dira. Aipatu behar da azken hau duten zenbait hitz, ziur asko, gaztelaniatik zuzenean hartu izanaren ditugula (cf. *tranposo*, *latoso*...), baina gero nolabaiteko atzizkitzat hartu dela, *potroso* honek, eta hau bezalakoek, frogatzen duten bezala.

Esan behar da, halaber, bi adiera dituela hitz honek, alde batetik “zorte ona, handia duena” (ondoko 1. adibidea), eta beste aldetik ‘potrohandi’ esanahia duena (2. adibidea).

- *Au potrosoa, berriz e amairu asmatu ttik kinielan!* (Hau potrosoa, berriz ere hamahiru asmatu ditik kinielak!)
- *Zu bezelako potroso gibelaundik sobran ttu emen* (Zu bezalako potroso gibelandiak soberan ditugu hemen!)

Pupuaundi (pupuhandi)

Pupu ‘mina’ haur hizkerako hitza da. Baina duen edo hartu duen minagatik asko kezutzen denari, edo espantu handiak ateratzen dituenari deitzen zaio horrela, txarresteko moduan (ikus *espantoso*).

- *Au pupuaundi espantoso! Indizio bat ez patzetik edozein gauza inen luke!* (Hau pupuhandi espantoso! Injekzio bat ez paratzeagatik edozein gauza eginen luke!)
- *Bai zala pupuaundia! Larrutu txar bat besteik ezta ta!* (Bai zarela pupuhandia! Larrutu txar bat besterik ez da eta!)

Puta, putakume, putaseme

Honako hauek gaztelaniatik hartu eta egokitutako hitzak izanen dira beharbada (inguruko eta ez hain hurbileko beste hizkuntza batzuetan ere honelakoak ohikoak dira). Dena den, zaharrak direla ez dago dudarik. Ale honetan bertan datorren Jose Luis Erdoziaren artikuluan *puta baten semea*

agertzen zaigu XVII. mendearen erdialdean. Segur aski, norbaiti botatzeko iraingarrienak dira, gartzelaniatik hartutako beste zenbaitzuekin batera (cf. *kabroi...*).

Aipatzeko da *puta* hitza emakumeei esateko erabiltzen dela, baina beste biak gizasemeei besteri ez zaiela esaten. Hemen ematen dugun azkeneko adibidean *zar/tzar*, indartzaitzat jo duguna, agertzen zaigu (ikus 2.2. puntuan, indartzeko moduen artean, *zar* sarrera).

- *Putakume galanta da ori*
- *Orrelako putasemeik ezta izain mundu ontan* (Horrelako putasemerik ez da izanen mundu honetan)
- *...emazan munduan den putasemerik haundiena izandu dela neretzako...* (Perurena, 1993: 36)
- *Emakume puta zikiñ ori ibilli da bazterrak nasten!* (Emakume puta zikin hori ibili da bazterrak nahasten!)
- *...putazar bat ematen omen ninan izter guziak agerian nituela...* (Perurena, 1993: 156)

Putanero

Badirudi gaskoierako *putan* hitzetik eratorritakoa dela, eta ez da orain-txekoa; Axularrek *putaner* aldaera erabiltzen du behin baino gehiagotan, esaterako: “*Zeren emaztetako indarra flakatuko baitzaika, baiña ez edatekoa hala: Bada iakizu ezen gizon putanerra, gaztean behi hala izatu dena, zahartzean ere komunzki hala obi dela*” (27. kap., 247 azpiatala). Salaberri Ibarrolakoa ere (1856: 147) jasotzen du bere hiztegian. Emakumezalea denari deitzen zaio horrela.

- *Eztula ligatzen? Putanero politta duk eta ori!* (Ez duela ligatzen? Putanero polita duk eta hori!)
- *Urde putanero ori bestén emakumekin zabillek berriz e!* (Urde putanero hori besteren emakuekin zabillak berriz ere!)
- *...eta larrua jo nahi banuen joateko edozein putanero zarrengana, hura gizon ondradua zela!* (Perurena, 1993: 156)

Putzurittu

Ez da inongo hiztegitan agertzen, baina itxura guztien arabera *putz*-etik eratorri da (agian *putz* + *zuritu?*). Berez, *putz* edo *puzker* asko botatzen dituen da; hori dela eta, gehienetan *kakazu* edo *zikin* hitzekin batera agertzeko joera du.

- *Alde emendik demonio zorrizu mukizu kakazu putzurittua!* (Alde hemendik demonio zorrizu mukizu kakazu putzuritua)
- *Zarri putzurittu zikiñ ori ai da berriz e berek itten!* (Zerri putzuritu zikin hori ari da berriz ere bereak egiten!)

Setoso/-a

Esanahiari gagozkiola *setatsua*-ren parekoa da, eta formari begiratu *-oso/-a* atzizkiarekin osatua dago. Nori zuzentzen zaion, generoa bereizten da.

- *Zeñen setoso eta temosoa den gai ori ukitzen dunen!* (Zeinen setoso eta temosoa den gai hori ukitzen dugunean!)

- *Ume ori setoso kasketoso bat besteik ezta!* (Ume hori setoso kasketoso bat besterik ez da!)

Temoso/-a

Gauza berarekin behin eta berriro aritzen dena, tematzen dena, tematsua. Aurreko hitzean agertzen den atzizki bera dugu hemen ere.

- *Bai temosoa zala! Beti kontu berakin!* (Bai temosoa zarela! Beti kontu berarekin!)
- *Ori biño pertsona temosoik etzo arrapatuko iñon!* (Hori baino pertsona temosorik ez duzu harrapatuko inon!)

Tonto/-a

Hainbat eta hainbat irain hitz bezala, hau ere gaztelaniatik hartua dugu. Jakina, generoa bereizten da.

- *Tontoa zu, nola etzinin seittun dirua artu!* (Tontoa zu, nola ez zenion segituan dirua hartu!)
- *Nik uste, antzerki ttiki horretatik pasa gabe ezkontzen den emakumea tonta amorratua dela...* (Perurena, 1993: 219)
- *Tonta zarra, ez bestena, hi!* (Perurena, 1993: 137)
- *Tonta jakituna, tonta ezjakina baino tontagoa dela ohartzten direnean liberatuko dira zinetan ematxartuak* (Perurena, 1993: 248)

Tontolio

Esanahiaren aldetik *tonto*-ren antzekoa da. Batik bat gizonezkoei esaten zaie, beste hainbat irain hitz bezala (cf. *melontzio*...).

- *Zergatik ez dun etortzen ilunabarrero nerekin gozo gozoan egotera? Tontolio zar hori!* (Perurena, 1993: 146)
- *Karta hau hiri eskribitzen hasi ez banintz, oraindik hementxe nengonan tontoilo (sic) horretaz pentsatzen jarrita* (Perurena, 1993: 150)

Tranposo/-a

Gaztelaniatik mailegatua da, eta beste hainbat hitz bezala *-oso/-a* atzizkiarekin eratua dago.

- *Tranposo zikin hori beti azpikeritan aitzen da!* (Tranposo zikin hori beti azpikeriatan aritzen da!)
- *...nola amodiozko errukian hala gorrotozko mendekuan, gizon noblea baino tranpoxagoa dun emakumea* (Perurena, 1993: 23)

Tripero

Tripazalea, tripontzia denari deitzen zaio horrela; *putanero* hitzean agertzen den *-ero* bukaera berarekin osatzen da.

- *Orrek bezalako triperok aurren patzen tzin guzia iretsiko dik!* (Horrek bezalako triperoak aurreran paratzen zaion guztia iretsiko dik!)
- *Zaizki⁶ berekoa duk: tripero galanta!* (Zaizki berekoa duk: tripero galanta!)

⁶ *Zaizki*: arraza. *Zaizki berekoa*: arraza berekoa, enbor (ezpal) berekoa.

Txatxu

Hitz honek ez du Nafarroako zenbait herritan duen “txorimalo” esanahirik; laidotako erabiltzen denean *txoro*, *ergel* hitzen esanahi bertsua du.

- *Txatxu ergel batzuk besteik etzate!* (Txatxu ergel batzuk besterik ez zarete!)
- *Ba, niri izugarrizko pena ematen zidan gizona hain exkax eta txatxu bihurtzen ari dela ikusteak* (Perurena, 1993: 37)
- *Eta horixe ere desterratu arteko onik ez duela zirudin gaurko gizarte ddemokrattiko txatxu honek* (Perurena, 1993: 67)
- *Neska, neska, ez hadinala hain txoralda izan; ez hienala kasurik egin Victoria Sors eta beste txatxu horiei* (Perurena, 1993: 199)

Txoliñ (txolin)

Ergel, txoro, buruarin eta fundamentu handirik gabekoa-ren parekoa da.

- *Au da au ergel txoliña!* (Hau da hau ergel txolina!)
- *Zu bezelako neska txoliñik ba al da, ba, iñone?* (Zu bezelako neska txolinik ba al da, ba, inon ere?)

Txoriburu

Ezaguna eta oso hedatua dago; ‘buruarina, zentzu gutxikoa’ esan nahi du.

- *Txoriburu orreri aztuko etzio ba enkargua!* (Txoriburu horri ahaztuko ez zaio ba enkargua!)
- *Beheraxeago honela esaten din berriz ere, txoriburu alen horrek...* (Perurena, 1993: 190)
- *Buruan mila dattu ergel hartzen baizik ez dakiten pedante txoriburu horiei esana dun...* (Perurena, 1993: 233)

Txoro, txoralda

Orokorra da, eta ‘ergel, zentzugabeko’ adierarekin erabiltzen da; zenbaitetan *-alda* bukaerarekin ere ager dakiguke.

- *Txoro ergela, ze ittera torri za onara!* (Txoro ergela, zer egitera etorri zara hona?)
- *Au da au txoroa! Ark eskatu ta zuk utzi!* (Hau da hau txoroa! Hark eskatu eta zuk utzi!)
- *...gaurko sikopata txoraldek, arrazoimen ergelak sortu dituen irudipentara makurtu nahi diten gorputza, baina...* (Perurena, 1993: 117)
- *Neska, neska, ez hadinala hain txoralda izan; ez hienala kasurik egin Victoria Sors eta beste txatxu horiei* (Perurena, 1993: 199)

Txotxolo/-a

Ez da oso birao iraingarria, *tuntuna*, *ergel* edo *tonto*-ren antzekoa izan daiteke.

- *Ergel txotxoloa, zertik itten dizo kaso an esanari?* (Ergel txotxoloa, zergatik egiten diozu kaso haren/han esanari?)
- *Txotxolo batzuk ori san dutela ta zuk xinixtu!* (Txotxolo batzuek hori esan dutela eta zuk sinistu!)

Femeninoa ere erabil daiteke:

- *Txotxola, zu! Ematten al zinin ordun bertan!* (Txotxola, zu! Ematen ahal zenion orduan bertan!)

Txulo/-a

Gaztelaniatik hartutako hitza da, eta generoa mantentzen du.

- *Txulo fanfarroi orrekin atetzen al tza?* (Txulo fanfarroi horrekin ateratzen al zara?)
- *...izan ere, horiek baitira haien bazterketa guztien iturri, horiek beren arerio; txula harroputz zikin horiek beren etsairik madarikatuena* (Perurena, 1993: 78)

Umemoko

Haurrei esateko erabiltzen da, bai eta heldutakoei ere, baina kasu honetan umetzat edo umekontutzat jotzeko.

- *Nola emain dizut ba ardoa, oaindik umemoko mukizu bat besteik etza ta!* (Nola emanen dizut ba ardoa, oraindik umemoko mukizu bat besteik ez zara eta!)
- *Nere honenik probatu gabe beharko din behintzat, umemokoren moduan negarra dariola eskaka heldu bazait ere!* (Perurena, 1993: 156)

Urde, urdanga

Urde Euskal Herrian hedatua den hitza da; erruz erabiltzen da iraintzeko. Hain zuzen horregatik, lan honetan agertu ditugun adibide asko eta askotan aurki daiteke. *Urdanga*, berriz, *urde* + *-(a)nga* atzizkiaz osatua dago (cf. *luzanga*), eta ‘emagaldua’-edo esan nahi du.

- *Zarri urdea, i! Zertako in diak ori?* (Zerri urdea, hi! Zertako egin didak hori?)
- *...lotsa beharko omen niken ibiltzen naizen bezala ibiltzeko, urdanga baten moduan...* (Perurena, 1993: 155)
- *...ikusten dinat Luisito ere, urdanga zar aprobetxategi bat besterik ez haizenala esaka...* (Perurena, 1993: 228)

Xaor (xabor, zabor)

Esanahiari begira *txiki*, *txar*, *ñañu*, *ttattar* hitzen parekoa da; gehienetan *ume* hitzari lagunduz entzun dugu.

- *Ziarro erretzen asi za? Oaindik ume xaor mukizu bat besteik etza ta!* (Zigarro erretzen hasi zara? Oraindik ume xabor mukizu bat besterik ez zara eta!)
- *Ume xaor batzuk besteik etzailtzan plazan* (Ume xabor batzuk besterik ez zabiltzan plazan)

Zakur

Iraintzeko denean ‘maltzurra’-edo dela esateko erabiltzen da.

- *Bazakik ze itten dun, bai! Aspaldiko zakur zarra baituk ori!* (Bazakik zer egiten duen, bai! Aspaldiko zakur tzarra baituk hori!)
- *...halako faltsomutur batekin begiratzen ez ote zuen irudi gaizto egina negon; zakur samarra ez ote den, alegia; eta zakur guziak izaten diren bezala, harronkoso hutsa gainera* (Perurena, 1993: 229)

Zarratatu

Emakumeei zuzendutako biraoa da; adieraz “hautsi, urratu, ireki, ebaki” hitzen parekoa da. Honen ondoan *zarratera* (bai eta *zerratera* ere) “irekidura,

hautsidura, urradura” izena ere erabiltzen da (cf. *zerratera bat in tzite galtzari* “zarratera, urradura, bat egin zaie galtzei”). Argi dago, emakumeen sexu-organoari erreferentzia eginez, gutxiesteko edo txarresteko modua dela.

- *Urde zarratatu zikiña!* (Urde zarratatu zikina!)
- *Iztape zikin zarratatu bat besteik ezta ori!* (Iztape zikin zarratatu bat besterik ez da hori!)

Zarri (zerri)

Maiz erabiltzen da iraintzeko; askotan *urde* hitzarekin batera ematen da. Gutxienez lau adiera ditu: 1. zikina; 2. handia, lodia; 3. alferra, lasaia, eta 4. kasurik egiten ez duena; ez aditua, ez entzuna egiten duena.

- *Alantako zarri zikin urdea!* (Alentako zerri zikin urdea!)
- *Zarri orrek ezto kolpeik jotzen!* (Zerri horrek ez du kolperik jotzen!)
- *Zarria duk, e! San ta san, ta kasoik ez!* (Zerria duk, eh! Esan eta esan, eta kasurik ez!)

Zepel

Gazi-gozorik gabekoa, eta zenbaitetan ere *tuntun*, *zozo* hitzen parekoa. Hitz honek “mozkorra, mozkorraldia” adiera ere badu (Mugicak jasotzen du bere hiztegian), eta *zepeldu* “mozkortu; burua berotu, txoratu” da. Esaterako: *atzo izuarrizko zepela bildu zunun* “atzo izugarrizko zepela bildu zenuen” edo *etzakela kasoik in, zepelduta zeok ta* “ez iezaioala kasorik egin, zepelduta zegoik eta”. Zentzu honetan ere hitz honen beste aldaera bat –edo beste aldaera bat ematen duena, behintzat– erruz ibiltzen da: *zepeliña* (cf. *ori zepeliña naukin atzo!* “Hori zepelina neukan atzo!”).

- Norbaiti iseka egiteko ondoko hauek ditugu, esaterako:
- *Ze fundamentu iñen tzo ba zuk, demonio kaiku zepela!* (Zer fundamentu eginen duzu bada zuk, demonio kaiku zepela!)
- *Au buruaundi zepela, ar tzak ori lurretik!* (Hau buruhandi zepela, har ezak hori lurretik!)

Zepeltzio

Aurrekoaren aldaera da *-tzio* morfemarekin (cf. *melontzio*); artikulurik gabe erabiltzen da. Esanahiaren aldetik *zepel*, *melontzio*-ren paretsukoa da.

- *Au demonio zepeltzio! Ori biño fundamentu geixio itten al yuen!* (Hau demonio zepeltzio! Hori baino fundamentu gehixeago egiten ahal huen!)
- *...hark emandako erantzun zorrotza: “Aizak hi, zepeltzio! Horiek ez dituk zikinak eh!* (Perurena, 1993: 11)

Zikiñ (zikin)

Dagokigun arlo honetan galanki erabiltzen den izenondoa. Zenbaitetan aurreko izenaren indartzailetakoa ere erabiltzen da (ikus azkeneko adibidea).

- *Alantako nazkarri zikiña!* (Alentako nazkagarri zikina!)
- *Urde zarri zikiña! Mukik lurrera bota bear! Ez al dikik pañulon zintzatzen?* (Urde zerri zikina! Mukiak lurrera bota behar! Ez al dakik pañueloan zintzatzen?)
- *Kabroi putakume zikiña!*

Zimaluze

Berez, ile, zima luzeak dituena da, baina norbait irantzeko hitzatzat ere erabiltzen da.

- *Zimaluze zorrizu orreri emain ttit krixtonak, e!* (Zimaluze zorrizu horri emanen ditiot kristorenak, eh!)
- *Orduan aldameneko koartoa ederki ari hintzenan ba zimaluze harekin larrutan?* (Perurena, 1993: 16)

Zimazu

Zima asko, ugari dituena; askotan *zorrizu* hitzarekin batera agertzen da, kideasun semantikoa –heine batean– eta fonetikoa dutelako.

- *Kusten al tzo ze itxura dun zorrizu zimazu orrek* (Ikusten al duzu zer itxura duen zorrizu zimazu horrek!)
- *Ume mukizu zimazu zoldazu orrek autsi do* (Ume mukizu zimazu zoldazu horrek hautsi du)

Zirindu

Zirin hitzetik eratorria da eta “zirin asko duena edo egiten duena” adierazten du. Lehenxeago aipatu dugun bezala, hitz honen arlo semantiko bera dutenak elkartzeko joera izaten da normalean (cf. *kakazu*, *putzurittu...*).

- *Urde kakazu zoldazu zimazu zirindu orrek nasi tto bazter guzik* (Urde kakazu zoldazu zimazu zirindu horrek nahasi ditu bazter guztiak!)
- *Nazkarri zikin ziroldu zirindua!* (Nazkagarri zikin ziroldu zirindua!)

Ziroldu (ziroldu)

‘Txoro, txatxu, ñaño, ergela’ esanahia du izenondo honek; Mugicak *xirol* hitzari “golfillo, pilluelo” esanahia ematen dio. Goizuetan hasierako frikaria bizkarkaria da argi eta garbi.

- *Zimazu zorrizu ziroldu bat besteik ezta* (Zimazu zorrizu ziroldu bat besterik ez da)
- *...edo modak xoratu delakotz, edo lehenaz gain txoil xiroldu delakotz* (Perurena, 1993: 24)
- *Bazirudin kakeria mentalak jotako xiroldu guzien nagusitzarako prestatu nahi digutela gizartea* (Perurena, 1993: 54)
- *Dagoeneko hasiak ditun zer egin ez dakiten elkarte xiroldu horietako batzuk aisialdia nola jasan erakusten?* (Perurena, 1993: 93)

Zital

Beste izenondo honek, berriz, ‘errea, erretxina’ edo ‘erantzun gaiztoko, joera makurreko pertsona’ adierazten du biraotako ibiltzen denean. *Xital* aldaera bustia ere ager daiteke.

- *Bai pertsonan alrebesa ta zitala, redios!* (Bai pertsonaren alrebesa eta zitala, redios!)
- *...mendekurako joera txar hori ematxar xital horiengandik hartua ez ote dunan* (Perurena, 1993: 17)

Zoldazu

Hitz hau *zolda* “kraka, zikina” izenarekin eta *-zu (-tsu)* ugaritasunezko atzizkiarekin osatua dago.

- *Oain e in zeak erra alu urde zimazu zoldazu zorrizu orrek!* (Orain ere egin zidak ederra alu urde zimazu zoldazu zorrizu horrek!)
- *Aien tzittez emendik alantako zoldazu mukizua!* (Aiena zaitez [alde egin ezazu] hemendik alentako zoldazu mukizua!)

Zorrizu

Etimologikoki duen esanahia baztertu gabe, beste bat hartu du hitz honek, hau da, *zorrizu* “zorri asko dituen” adieraziarekin ez ezik, sakretako ere erabil daiteke “ergel, txatxu, txar” esanahiarekin.

- *Zorrizu iartu bat torri zizian itxera* (Zorrizu ihartu bat etorri zitzaidan etxera)
- *Eta oraindik motiko zorrizu bat besterik ez dela* (Perurena, 1993: 43)

Zozo

Hitz honek gazi-gozorik gabeko pertsona adierazten du, gatz-piperrik gabekoa, inozoa.

- *Au zozo zepela! Berriz e inen ditek kaka burutik betti!* (Hau zozoa! Berriz ere eginen ditek kaka burutik beheiti!)
- *I bezelako zozo artaburuik ezti inon e kusi!* (Hi bezalako zozo artabururik ez diat inon ere ikusi!)

Zur, xur (zuhur, xuhur)

Goizuetan izenondo honek ‘zikoitza, zekena’ esanahia du. Honen gainean eraiki dira *zurkeria* izena eta *zurtu* aditza; esate bateko, *izuarri zurtu ziu gizona!* (Izugarri zuhurtu zaigu gizona!) edo *orrela ibilli bear diu beti, xurkerin! Paga zak ronda au, mote!* (Horrela ibili behar diagu beti, xuhurkerian! Paga ezak erronda hau, motel!). *Xur* aldaera bustia ere maiz erabiltzen da.

- *Nola emain dizo, ba, dirua, ezti ze biño zurroa da ta!* (Nola emanen dizu, ba, dirua, ez dakit zer baino zuhurragoa da eta!)
- *Au duk au xurra! Ezti onek bela ateko dirua sakeletik, ez!* (Hau duk hau xuhurra! Ez dik honek berehala aterako dirua sakeletik, ez!)

Hona P. Perurenak ibiltzen duen beste aldaera polit eta erakusgarri bat:

- *Beti merkezur ibili izandu dun eta, orain ere igoal hori, pezta bat gastatu baino lepoa hautsi nahiago duela!* (1993: 268-69)

2.2. Esandakoa indartzeko moduak

Botatako maldizio, sakre, juramentu edo irain hitza indartzeko beste elementu osagarri batzuk ere erabiltzen dira; hauen zeregina esandakoa areagotzea da, edo aipatu den ezaugarri oro har txarra indartzeko balio dute.

Batzuk izenaren edo izenondoaren ezkerretan paratzen dira (*alantako, demonio...*); beste batzuk, berriz, ondoren (*alana, alakoa, -ez bestena...*).

Alako (halako)

Berez, izenlaguna da, baina kontuan hartu behar da, hartzen duen lekuneari dagokionez, ez dela izenaren aurretik paratzen, hau da, ez doala izenlagunek ohikoa duten tokian, beti izenaren eskuineko aldean baizik. Toki horrek ematen dio, hain zuzen ere, interjekzio kutsua (ondoko adibidea ekarriz, esaterako, ez da berdin *halako kabroia* edo *kabroi halakoa*):

- *Kabroi alakoa, zu!* (Kabroi halakoa, zu!)
- *Zarri alako orrek in do oain e berea!* (Zerri halako horrek egin du orain ere berea!)

Alana (alena)

- Izenondoaren eskuinetara agertzen da indar gehiago emateko.
- *Txoro ergel alana! Enkargua itteko re talentuik etzo!* (Txoro ergel alena! Enkargua egiteko ere talenturik ez duzu!)
 - *Alfer alena, hi* (Perurena, 1993: 41)

Alantako (alentak)

Aurrekoa izenondoaren eskuinetara paratzen bazen, honako hau, jatorri berekoa izanda, izenondoaren aurrean kokatzen da, *-ko* atzikia daramaten izenlagun arrunten lekuan.

- *Alantako nazkarri zikina! Mukik yaten!* (Alentako nazkagarri zikina! Mukiak jaten!)
- *Txoroa, alantako txoroa!*

Bai

Edozein izenondoren aurretik paratuz gero harridurazko esaldiak osatzen ditu; sakre kontuetan murgilean sarturik, ezin bestela izan, esaten dena nolabait indartzeko edo ñabardura berezi bat emateko erabiltzen da.

- *Bai umen ergela!* (Bai umearen ergela!)
- *Anka zikiñakin oen sartu behar! Bai zarria zala!* (Hanka zikinekin ohean sartu behar! Bai zerria zarela!)

Demonio

Zenbait testuingurutan ez du birao arrastorik, esaterako ‘aski’ adberbio mailakatzailaren parekoa denean:

- *Audo demonio torri zen!* (Agudo demonio etorri zen!)

Baina iseka-hitzen baten ondoan agertzen denean, laguntzeaz landara, nolabait indartu ere egiten du:

- *Demonio alua, i! Nola iñen diak, ba, oloko azioa!* (Demonio alua, hi! Nola eginen didak, bada, horrelako azioa!)
- *Demonio zorrizua, nola io da gotti!* (Demonio zorrizua, nola igo da goiti!)

ez bestena (ez bestena)

Esamolde hau ‘halako’ izenlagunaren paretzukoa da. Azentua bigarren silaban doa (*besténa*), eta ez lehenbizikoan (cf. *béstena* “bestearena” edo “besteena”). Azken hau izenlaguna da; bestea, berriz, irainetan erabiltzen den esapide egina. Egia esan, artikulua ez da berezkoa (ikus ondoan ematen dugun azkeneko adibidea).

- *Zorrizu mukizu ez bestena!*
- *Urde kabroi ez bestena! Oloko alukerik ez in niri, e!* (Urde kabroi ez bestena! Horrelako alukeriarik ez egin niri, eh!)
- *Tuntuna ez bestena, hi* (Perurena, 1993: 44)
- *Tonta zarra ez bestena, hi* (Perurena, 1993: 137)

- *Txoro ergel ez besten orrek inñ al do?* (Txoro ergel ez besten horrek egin al du?)

Iraukikan (iraukirik(an))

Mugicaren hiztegian aurkitu ditugu hitz honen aztarnak. Berak *irauki* aditza “2. sostener, conservar, mantener, hacer durar” biltzen du. Badirudi osagarriak *iraun* + *-ki* direla, eta hemen agertzen den *iraukirikan* aldaera partitiboarekin eta beste zenbait deklinabide atzizkirekin agertzen den bukaera bera duena dela.

Hortaz, irudi luke emandako kualitatea “iraunarazteko” –azken finean, indartzeko– balio duela. Gaur egun ez da oso entzuna, baina oraindik ere mantentzen da adizki polit hau.

- *Txoro iraukikan, zu, zer tzaitza or itxura orrekin!* (Txoro iraukirikan, zu, zer zabilta hor itxura horrekin!)
- *Demonio zerria, hi, hauxe iraukikan* (Perurena, 1993: 185)

Uxe

Alana edo *alantako*-ren esanahi bertsua du. Mugicak horrela dakar: “**gaiztoa uxea!** AN = ¡malo, más que malo!”

- *Uxe lotsagabe zikina* (Perurena, 1993: 153)
- *Alubita uxea!* (Perurena, 1993: 154)

Hitz honen beste aldaera bat *uxa* izan daiteke, *aluxa* hitzean agertzen dena. Ikus, bestela, P. Perurenaren ondoko adibide hau:

- *Ai aluxa, hor al hintzenan, hor!* (2004: 153)

Zar

Batuan *tzar* moduan ematen den bera, eta Luzaideko *-zar/-tzar* bera (ikus Kamino & Salaberry & Zubiri, 2004: 330). Handitasuna, txarkeria, gaiztake-ria... adierazteko erabiltzen da. Azken batean aurreko izenak dioena txarragotzeko, areagotzeko txertatzen da izenondo hau.

- *Urde zar madarikatua!*
- *Atso zar zikin oriek bildu dia berriz e!* (Atso zar zikin horiek bildu dira berriz ere!)

2.3. Irain hitzen mailak

Ez dakigu akats fisikoen atalean eman ditugun hitzetan halako bereizketak egiterik dagoenik, denak maila bertsuan daudela esanen genuke; horrela, besterik gabe, bat bestea baino gogorragoa edo iraingarriagoa dela esateko irizpide garbirik ez dago. Beraz, tonuak, egoerak eta testuinguruak lagunduko dute modu batera edo bestera hartzen eta mailakatzen.

Mailak garbikiago egin daitezke “nortasunari erreferentzia egiten dioten irain hitzak” atalean. Dena dela, birao hitz bat zein mailataraino den gogorra edo ez esatea beti erraza ez den arren, saiaturako gara nolabaiteko mailakatze bat egiten kontuan izanik tonuak, testuinguruak eta beste hainbat elementu ere parte hartzen dutela multzo batean edo bestean kokatzeko orduan. Hemen hiru multzo nagusi bereizi ditugu: arinak edo oso iraingarriak ez direnena, erdi mailakoak-edo izan daitezkeenena, eta gogorrenak edota iraingarrienak direnena.

Ez gara xehetasunetan eta azalpen ugarian sartuko, horretarako aurrean eman ditugun zerrenda eta adibideak ikus baitaitezke; batik bat orientabideztat aipatzen ditugu, eta ez da gure oraingo asmoa denak banaka-banaka

zerrendatzea eta zergatik hau hemen bai edo beste hori han ez azaltzea, luze joko bailiguke lantegi horrek, eta dagoeneko nahiko luzatu da. Gure asmoa gutxi gorabeherako mailaketa bat aurkeztea besterik ez da.

Zenbait hitz maila batean eta bestean paratu ditugu, zaila egiten zaigulako toki batean bakarrean sartzea, eta, gure ustez, bi mailetan egon daitezkeelako. Hona, hortaz, proposamena.

a) Arinak

Arinak deitu ditugunak edo hain iraingarriak ez direnak aipatuko ditugu segidan:

Alu, aluita, artaburu, astalore, babalore, babu, bisigu, ergel, espantoso, gaxo, gizajo, gizaxo, hitzontzi, ipurterre, kaiku, kakazu, kakontzi, kankallu, kapritxoso, kasketoso, latoso, lotsa[ga]be, mañoso, mañontzi, melontzio, mokoso, momolo, mukizu, ñaño, odolki, ollo, ollanda, ollar, pantasioso, paiaso, pelele, pixontzi, pupuaundi, setoso, temoso, tonto, tontolio, txatxu, txoro, txotxolo, urde, zarri, zepel, zepeltzio, zimaluze, zozo, zur...

Honatx, esaterako, P. Perurenaren pasarte hau baba kontuez ari dela: “Oraindik bizirik dirauten *tonto del haba, tontolaba* eta gisako esanerei ere, holatsuko zorritzar kutsua dariela baitirudi. Euskarazko *babalasto, babalore, babazaku, babazorro*, eta antzekoak ere, ingurutsu horretan dabiltzala ematen du” (2004: 57).

Hizkera hau bat-batekoa eta oso bizia denez sormenak ere badu lekurik, eta “asmatutako” birao hitzak ere aurki daitezke; esaterako, *muxarra, mesalasto* (mailalasto, mailasto), *txurikiña* (txurikina)... denak esanahi berdintsuarekin: “zozo, artaburu, astalore, ergel...”. Horrelakoak ez ditugu goiko zerrendan sartu, itxuraz behintzat, oso bizi-iraupen urria dutelako eta belaunaldi batetik bestera desagertzen direlako.

b) Erdi mailakoak

Erdi mailakoen artean ondoko hauek emanen genituzke, beti ere aintzat hartuz biraoa botatzen den testuinguruak mailaketa kontu honetan pisuzko garrantzia duela:

Alu, antsikabe, arro, arroputz, astakirten, astapito, astapotro, astazakil, asto, buztanaundi, buztanbero, enbustero, erdezu, ergel, faltso, fanfarroi, inbidioso, intxixu, kakalardo (kakalikardo), kakazu, kakerre, kabroi, mingainzikin, mukizu, nazkagarri, nazkante, pantasioso, potroso, putzurittu, txoro, txulo, urde, urdanga, zakur, zarri, zimazu, zirindu, zioldu, zorrizu...

Maila guztietarako balio baldin badu ere, esan behar dugu antzeko soinuek ere elkarrarazten dituztela hainbat hitz mespretxu itxura hau hartzeko (azken finean, bertsolaritzako teknikaz balia daiteke, eta baliatzen da). Adibidez, *ergel-zepel-mengel...*; edo sail honetakoak hartuz, hots-kidetasunak eraginik, askotan, elkarrekin agertzen dira: *zimazu, zorrizu, mukizu, zirindu, zioldu, putzurittu, nazka[ga]rri, zikiña...*

c) Gogorak

Gogorrenak, oro har, gatzelaniatik mailegatutakoak dira, baina badira bakarren batzuk (seguruenik herriz herri aldatzen direnak), nolabait esateko, geronak direnak:

Azkenkarena, hijoputa, kabroi, putakume, putaseme, zarratatu...

Hitzez landa, badira beste zenbait hitz edota esapide arrunt laidogarriak direnak. Adibidez, emakume bati “*urde zarratatu potzotzo*⁷ *zikin usaindua*” esatea ez da batere samurra, edo gizaseme bati “*agure zar erdezu nazkagarri zikina*” esatea ere ez.

Bestalde, oso iraingarriak diren hitz batzuk hainbeste ez direnekin elkar-tzen badira efektu bera sor dezakete, hau da, hiru-lau (edo bost) hitz elkarren segidan emateak gehiago indartzen du esaten ari dena (cf. *alantako urde zerri kabroi putakume zikina*).

3. MORFOLOGIAN OINARRITUTAKO SAILKAPENA

Lan honen hitzaurrean aipatu dugu sailkatzeko modu bat baino gehiago badagoela, eta guk aukeratu duguna bat besterik ez dela. Oraingo honetan beste ikuspuntu bat baizik ez dugu azaldu nahi: hitzek agertzen duten formari edo eratzeko moduari begiraturaz egin daitekeen sailkapen mota agertu nahi dugu. Hemen aurkezten duguna eredu moduko zerbait da, sakontasun handiegirik gabe aurkezten duguna, forman baino gehiago oinarritu baikara esanahian.

Beharbada, ikuspegi honek beste modu batera ikusten gehixeago lagundu dugu.

Hortaz, birao-hitzak nola eratuak dauden ikusiz honako atal hauek egin daitezkeela iruditzen zaigu:

1. Atzizki eta bukaera bidez eratutako hitzak
2. Postposizioekin osatutakoak
3. Izen + izenondoez osatzen direnak
4. Izen elkarketaren bidez eratutakoak
5. Hitz bakunak, jareak

6.1. *Atzizki eta bukaera bidez eratutakoak*

Ondoko koadroetan agertzen ditugu alde batetik, zutabe batean, zein izen erabiltzen diren, eta beste aldetik, bigarren zutabean, zein atzizki edo bukaera erants dakiekeen.

| Izenak | Atzizki eta bukaerak |
|----------|----------------------|
| Erde | |
| Kaka | |
| Muki | |
| Zima | -zu |
| Zolda | |
| Zorri | |
| Putzuri- | |
| Zarrata- | -tu/du |
| Zirin | |
| Zirol | |

⁷ *Potzotzo*: ‘pottott(o)a, alua’, baina modu markatuan (gogorragoan) emana.

| Izenak | Atzizki eta bukaerak |
|---|----------------------|
| Nazka Lotsa | -garri |
| Nazka Teleka | -nte |
| Gezur(t) Putan Tripa | -ero |
| Espantu Gezurti Inbidia Kapritxo Kasketa Maña Pantasia Lata Tranpa Petro Seta | -oso/-a |

Azken koadro honetako izenik gehienak maskulinoan eta femeninoan erabiltzen dira; baina, begi bistan den bezala, *potroso* hitza, esaterako, maskulinoan bakarrik ematen da ‘potro handiak dituen pertsona’ dela adierazi nahi bada behintzat.

6.2. Postposizioekin osatutakoak

Ez da multzo handia; postposizio bakarra aurkitu dugu (*gabe, gabeko*).

| Izenak | Postposizioa |
|---|--------------|
| Antsi Buru Fundamentu Lotsa Talentu | Gabe(ko) |

6.3. Izen + izenondoez osatzen direnak

Sail honetan izen bat eta izenondo bat bateratuz lortutako hitz elkartuak sar daitezke. Gehienetan euskarazko hitz elkarketari dagozkion hots aldaketak bete-betean gertatzen dira (cf. *lepo > lepa...*).

| Izenak | Izenondoak |
|------------------|--|
| Arrautz | Handi |
| Belarri | Handi Moz Luze |
| Epurdi | Handi Erre |
| Gibel | Handi |
| Hanka | Ihar Mehe |
| Lepo | Ihar Luze Mehe |
| Mingain Zikin | Luze Mizto |
| Mutur | Bero Luze Oker Zikin Zorrotz |
| Piper | Erre(a) |
| Potro | Handi Zar |
| Pupu | Handi |
| Tripa | Handi Zar |
| Zima | Luze |

Koadroetan izen bakoitzari dagozkion adjektiborik erabilienak paratu ditugu; horrek ez du esan nahi ezkerreko zutabeko izenek beste izenondoren bat har ez dezaketenik. Konparazio batera, *muturrihar*, *muturzar* edo *potrooker* bezalako izen eratorriak ere erabil daitezke; baina horrelakoak ez ditugu ez hemen eta ez aurreko sailkapenean sartu, gehiegi ez luzatzearren.

Arrazoi beragatik ez dugu koadroa luzeagoa egin, baina, nahi izanez gero gaineratu daitezke *begioker*, *sudurrandi*, *sudurroker*... bezalako izenak ere, hau da, gorpuz atalaren izenez eta *handi*, *oker*, *zar*, *zikin* edo antzeko izenondoez osatutako eratorriak erabil daitezke laidoztatzeko asmoarekin.

6.4. Izen elkarketaren bidez eratutakoak

Kasu honetan izenak dira elkartzen direnak, eta egin berri dugun oharra eginen genuke berriz ere.

| Izenak | Izenak |
|--------------------------------------|-----------------------|
| Asto | Lore Pito Petro |
| Baba | Lore |
| Hitz Kaka Maña Pix Tripa | Ontzi |
| Puta | Kume Seme |
| Arto Txori | Buru |

Atal honetan ere aipatu behar dugu, koadroetan agertzen ez ditugun beste elkarketa mota batzuk ere sor daitezkeela, adibidez, *tripazaku*, *tripazorro*...

6.5. Hitz bakunak, jareak

Azkenik, aipatu behar da hitz askeez (inolako atzizkirik edo elkarketarik gabekoez) osatutako multzoa dagoela. Honako hauek ditugu, besteak beste:

Alu, arro, asto, babu, bixiu, ergel, fanfarroi, faltso, gaixo, intxixu, kabroi, kaiku, momolo, ñañu, puta, tonto, txatxu, txoro, urde, xaor, zakur, zarri, zepel, zozo, zur...

Hitz bakun hauen artean beste nolabaiteko azpisailkapena ere egin daiteke, zeren batzuetan animalia-izenak erabiltzen baitira norbait laidoztatzeko (cf. *asto, bisigu, oilo, oilanda, oilar, urde, zakur, zerri, zozo*...).

Ikus daitekeen bezala, sailkatzeko eta gauzak aurkezteko beste aukera bat da.

4. BIBLIOGRAFIA

- AXULAR (1976), *Gero*, L. Villasanteren argitalpena, Ed. Franciscana Aránzazu, Oñati.
- AZKUE, R. M. (1969), *Diccionario vasco-español-francés* (2 ale), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- AURKERENA, J. & GARCIA, C. & ZELAIA, J. (1999), *Irainka. Euskal irainen bilduma*, Gero/Mensajero, Bilbo.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J. (2004), "Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak", *Fontes Linguae Vasconum*, 96 zkia., 317-332.
- MITXELENA, K. (1987az geroztik), *Diccionario General Vasco/Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia/Desclée De Brouwer/Mensajero, Bilbo, (OEH).
- MUGICA, P. (1981), *Diccionario vasco-castellano* (2 ale), Mensajero, Bilbo.
- PERURENA, P. (1993), *Marasmus femininus*, Elkar, Donostia.
- , (2004), *Harrizko paretari erdiurratuak*, Euskaltzaindia/BBK fundazioa, Bilbo.

SALABERRI IBARROLAKOA (1856), *Vocabulaire de mots basques bas-navarraïis*, Baiona.
 SARASOLA, I. (1996), *Euskal hiztegia*, Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Gipuzkoa Donostia Kutzaren Gizarte Ekintza, Donostia.

LABURPENA

Goizueta juramentuak egiteko, maldizioak botatzeko eta besteez gaizki esaka aritzeko erabiltzen diren hitzak eta esapideak jaso ditugu lan honetan. Horretarako, lau atal nagusi bereizi dira: lehenbizikoan, nolako harridura hitzak edo esapideak dauden azaltzen da, bigarrenean erru edo akats fisikoei erreferentzia egiten dieten hitzen zerrenda agertzen da, hirugarrenean nortasunari erreferentzia egiten diotenak, eta laugarrenean esandakoa indartzeko erabiltzen diren hitz edo esamoldeak aipatzen dira.

Bestalde, nolabaiteko mailaketa burutze aldera, agertu nahi izan da, baita ere, emandako irain-hitzak zein mailatakoak diren, hau da, arinak, erdi mailakoak edo gogorak diren, irakurlearentzat erreferentzia izan dadin.

Azkenik, lan bera aurkezten da baina hitzen formari begiratzuz egin daitekeen sailkapena eskainiz, xehetasun eta zehaztapen askorik gabe, hala ere.

RESUMEN

En este trabajo se han recogido las palabras y expresiones que se utilizan en Goizueta a la hora de imprecar y echar maldiciones. Para efectuar tal descripción se ha hecho una división en cuatro partes: en la primera se enumeran las interjecciones existentes, en la segunda se agrupan las que hacen referencia a los defectos físicos, en la tercera las que se basan en defectos no físicos o morales y en la última parte se recogen las palabras y expresiones que sirven para remarcar lo dicho.

Se realiza también una clasificación de los juramentos por niveles según su fuerza expresiva, señalando cuáles son los más suaves, los de nivel intermedio y los más fuertes, para que el lector tenga una referencia aproximada del "estatus" de cada juramento.

Por último, y de forma muy breve, se presenta el trabajo analizado desde un punto de vista más morfológico.

RÉSUMÉ

Les mots et expressions utilisés à Goizueta pour proférer des imprécations et des malédictions, ont été recueillis dans ce travail, divisés en quatre groupes. Dans le premier on énumère les interjections qui existent, dans le deuxième on regroupe celles qui font allusion aux défauts physiques, le troisième comprend celle qui se base sur des défauts non physiques ou moraux et dans le dernier on recueille les mots et expressions qui ont utilisées pour remarquer ce qui a été dit.

Un classement des jurons par niveaux d'après leur force expressive est également effectué, en indiquant les plus doux, les intermédiaires et les plus forts, le lecteur pourra ainsi avoir une référence approximative de l'intensité de chacun d'eux.

En dernier lieu, et plus brièvement, le travail analysé est présenté d'un point de vue plus morphologique.

ABSTRACT

In this article, we have collected the words and expressions used in Goizueta to curse and swear. In order to make the description, the words and expressions are divided up into four parts: the first lists the existing interjections;

the second focuses on those which refer to physical defects: the third, those based on non-physical or moral defects; and the last groups together words and expressions used to highlight what is being said.

The curses are also classified by level according to their expressive strength, indicating the gentlest, those of an intermediate level and the strongest, so that the reader may have a rough reference as to the “status” of each.

The article ends with a brief morphological analysis of the study.